

uk

104. zenbakia / 2006 uztailak 23



06



ja!ak06



metro bilbao

www.metrobilbao.com
info@metrobilbao.net
Tel.: 94 425 40 25

UK galeria > Javi Martinez



Autodidaktatzat jotzen du Javier Martinez (Bilbo, 1959) argazkilariak bere burua, bere esanetan, bere garaian argazkiak egiten non ikasi ez zegoelako. Egun, *El Mundo* egunkarian egiten du behar, Madrilen, baina aurretik hainbat komunikabidetan argitaratu ditu bere argazkiak: *Deia*, *Gaur expres*, *El Sol*, *Diario 16*... Mota guztietako erreportaiak egiten dituen arren, politika eta kirola dira gehien jorratzen dituen gaiak. Aldi berean, makina bat erakusketatan (Madrilgo EFTI galeria, Telefonica Fundazioa, Espainiako Kongresua, Circulo de Bellas Artes...) eta lehiaketatan (Caixako Fotopres lehiaketan hirutan eskuratu du bigarren saria) parte hartu du. World Press Photo erakusketa entzutetsurako bere argazki bat aukeratu zuten 1992an.



«Hartzeko pronto, emateko tonto» Euskal esaera zaharra

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Getxo Jazz. Asier Mentxaka.
7. LEHEN ETA ORAIN. Algotako Satistegi plaza, 1973-2006.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Antoni Cabeza Zaraga.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Erandio 16. Sopelana 18. Berango 20. Leioa 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Asto probak Erandion, Asier Mentxaka.
28. ARGAZKIA. Jokin Aspuru.
30. BERBETAN. Christian Reinicke, Unai Brea.
34. FOTOGRAFIA. Zezenketak Algotan.

KULTURA ETA AISIA


42. ZINEMA. Oskar Fernandez zutabea. *Eutsi* filma.
43. MUSIKA. Nun taldearen azkena. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. Gerezi gorrien garaia, Paul Asensio. Liburuaren erreseinak.
45. KIROLAK. Oskar Martinez.

EUSKARAZ

46. ELKARRIZKETA. Itxaso Larrea.
47. AKABUKO PUNTE. Gure euskara, Xabi Bilbaoren eskutik.

AMAITZEKO


48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoren errezeta eta Itsaso Aranaren ardaoaren gaineko lezioa. Nora joan? Adibidez, Sustrai taberna.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Itxas-Argia dantza taldea, 1984. Bittor Egurrola.
54. AITORMENAK. Rafa Rueda.



30 Christian Reinicke

Berbetan

Arte adierazpen irakaslea eta zinegotzi ohia Getxon. Ekologismoa da bere pentsakeraren oinarri sendoenetako bat. Beragaz egon gara.



45 Oskar Martinez



19 Mikel Begoña



11 Antoni Cabeza



34 Zezenketak Algotan



54 Rafa Rueda

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarieta

HELBIGIDEA: Ametz 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171
Tel: 94 491 13 37

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Olane Moran, Aritz Bregel

FOTOGRAFIA: Asier Mendiak

TESTUEN ORRAZKETA: Jon Etxebarria

KOLABORATZAILEAK: Unai Brea, Bittor Egurola, Xabier Bilbao, Oskar Fernández, Unai Amezcaga, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Akaizte Kaminuaga, Amaia Arriaga, Berboto Erandion Euskaraz eta Bizarrak Lepoan Euskaraz Elkartea.

MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)

KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF

LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, erabat galarazirik dago

© Boluntzarieta

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskaraz elkarrean Topaguneko parteidea da



Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskaraz Elkarrean dirulaguntza jasotzen du

Itxasgane Etxea / Karitatea 1
94 491 43 57 / 48990 Algorta





Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du

Getxo
UDALA



Leioako Udala

Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskaraz Berbitzuko dirulaguntza jaso du



Berango Udala

Aldizkari honek Berango Udalaren dirulaguntza jaso du



Erandio Udala

Aldizkari honek Erandio Udalaren dirulaguntza jasotzen du



Erandio Berboto

Aldizkari honek Erandio Berboto Euskaraz elkarrean laguntza jasotzen du



Gortio Udala

Aldizkari honek Gortio Udalaren dirulaguntza jasotzen du




Sopelako Udala

Aldizkari honek Sopelako Udalaren laguntza jasotzen du



Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia

Kultura Saria
Departamentu de Cultura



Aldundia

Aldizkari honek Aldundia dirulaguntza jaso du



EROSKI FUNDAZIOA



uk

94 491 13 37
uk@aldizkaria.biz

gugeu

Iraila arte


Hauxe duzu irakurle gure oporren aurreko azken zenbakia, aurten egin dugun hamabigarrena. Ohi legez, merezitako atsedena hartzeko etentxoia egingo dugu abuztuaren eta ezustekorik ez bada behintzat, iraileko lehenengo egunetan jasoko duzu hurrengo UK.

Ale honetan betiko atalak betiko mimoz eginak topatuko dituzu. Baina horien guztien artean, bat nabarmendu nahi dugu *Gu geu* honetan: fotografia. Sarritan egiten dugun legez Getxoko Udal Liburutegiko artxiboa arakatzen ibili gara eta oso deigarria iruditu zaigun argazki sorta aurkitu dugu. Algortako txoko kuttuna, Portu Zaharra, bandera espainolez eta toreroz josia erakusten dute argazkiok. Francoren diktadurapeko garaioak dira irudiak eta historiaren zati hori bizi izan ez dugunontzat harrigarriak eta imajina ezinak. Irudi mingarri hauek (aldizkari hau egiten dugunontzat sikieran) UKn argitaratzeko ala ez zalantzatan ibili gara. Baiezkoa gailendu da akabuan. Sarritan sentitzen dugu horrelako hutsune handi bat gure memorian. Francok indarrez agindu zuen 40 urte luze horietan denbora eten zela ematen du batzuetan, hemen ez zela ezer gertatu. Inork ez digu horren berri zehatzik eman, isiltasun hitzarmena ete... Herri honetan zorionez baziren askatasunaren alde borrokan zebiltzan lagunak, hementxe bertan eta erbestean. Baina egia ere bada beste asko eta asko gerraoste luze eta latz horretan Portu Zaharreko zezenketak ikustera joaten zirela, pozik gainera jaiak ziren eta. Gustatu ala ez, herri honen memoriaren zati ere badira gertakizun hauek.

Uda ona pasa! ✓

UK-ko lantaldea

matematika aplikatua



Gorka Vázquez

leihatila > Maddi Albizu

Leihatila itxi

Inoiz esan dizuet "leihatila", izatez, leiho txikerra dela. Normalean errealitatea leihatila handiagoetatik behatzea ohi dugu gustukoago. Egia esanda, zenbat eta handiagoa izan leihoa orduan eta gauza gehiago ikus daitezke. Dena dela, hamabostero txoko xume honetatik luzatzen dizuedan gonbita ez da gauza asko ikusteko txikikerien sakontasunaz ohartzekoa baizik. Horretarako zer hobea begirada muturreraino fokalizatzen behartzen gaituen leiho txiki batetik begiratzea baino? Orain agur esan behar dizuet merezitako edo ez-merezitako udako oporrak pasa ondorenera arte. Leihatila aldi baterako ixteko ordua dut. Ez galdu, ordea, begirada zorrotza. Irailan berriz ere elkar ikusiko dugu. Ondo pasa udan! Gora bihotzak! ✓



GETXO, 2008KO UZTAILAREN 5A

Getxo Jazz 30 / Argazkian ikusten dugun taldea, Alemaniako Magnus Mehl Quintet, izan da aurtengo jazzaldiko irabazlea. Taldeak, gainera, pozteko arrazoi bikoitza dauka, Brice Moscardini taldeko tronpeta jotzailea ere saritu egin dute-eta. Hala ere, irudi honetan kontrakoa dirudi. Serio dago musikaria, geldi-geldirik, bere begiradaren hoztasunaz kamerako objektiboa zeharkatzen du. Bere lankideek, ordea, doinuari eskaini diote arima, euren inguruan ezer gertatuko ez balitz bezala... ○ / Argazkia: **Asier Mentxaka**



Asier Mentxaka

argazkiak / photographs

Satistegi kafea / Algorta
uztaila / july 2006

uk uribe kostako aldizkaria

cianoplan
global printers

bbk

[lehen]



GETXOKO UDAL LIBURUTEGIA

[orain]



ASER MENTXANA

Iraganez doa denbora* beti / ALGORTAKO SATISTEGI PLAZA 1973-2006

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > beverly getxo



Getxon eraiki nahi diren etheen infografia

Testua: **Xa2 Paya** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

Bi mila eta hamaika edo
bi mila eta hamarra:
Horra hor zer den Beverly Getxo,
"Tetris" formako herritzarra.
Orain rotonda borobil bat da
Galearen zelai zaharra,
ez al da triste samarra?
Ez ote da zoritxarra
gazteok Getxon bizi izateko
dugun aukera bakarra
gure arbaso zaharren lurra
zapalduz lortu beharra?

Bidezabalen aldatu zuten
lehenbiziko espaloia
eta ordutik ez da gelditu
eraikuntzen maratoia.
Lan-eremua zabaltzen dabil
zaborraren kamioia:
lehengo lur berde-marroia,
oraingo asfalto lohia.
Orain badakit "Babes Ofizial"
izenaren arrazoia:
halako ezerk ez du izango
inoiz Babes Herrikoia.

40 metro koadroko komun,
sukalde, sala ta gela:
400 mila euro BAKARRIK!
(60 milioi pela)
Hemen pertsonak jantzi behar dute
"SALDUTA" dion kartela,
edota jar dezatela,
Udaletxean bestela.
Nahiz ta jendeak ez duen gura
Andra Mariren eskela,
okerrena da pisuak berdin
erosiko dituela.

* Doinua: Leihu ertzetik



txistea > irribarrea

Emakume hark alargundutakoan berreskuratu omen zuen irribarrea. Honela esaten omen zuen:
–"Azkenean badakit senarrak non ematen dituen gauak!"

888 txiste, Kike Amonarriz (Argia, 2004)

bapiruke > eskolak amaitu eta zer egin umeakaz udako oporretan?



Algortan, Zabalako eskoletan eta, Erromon, Lamiakoko eskoletan burutuko dituzte ekintzak

Ekaina heltzean ikasleak pozik daude oporretan doazelako. Batzuek urrun eta beste batzuek gertu igaroko dute oporraldia, baina, ikasturtea gainditu dutenek behintzat, badakite ez dutela libururik irekiko. Hori, baina, buruhauste bat izaten da guraso askorentzat; izan ere, askok beharrean jarraitzen dute eta ez dakite umea non utzi. Horrez gain, badaude "erreta" amaitzen dutenak seme-alabakaz hainbeste denbora igaro ondoren. Orduan, zer egin? Bizarra Lepoan euskara elkarteak, esate baterako, Bapiruke Udaleku Irekiak antolatu ditu Erromon eta Algortan. Guztira, 5 eta 12 urte bitarteko 360 umek eman dute izena goizetan ekintzetan parte hartzeko: kirola, eskulanak... Gainera, astean birritan egun osoko irteerak egingo dituzte Bizarra Lepoanekoek: Baltzolako kobak, surf ikastaroa, Urdaibai, Gamarrako igerilekuak... ○

Galeako fortea > kontserbazio maila altuena dauka Bizkaian



Gotorlekuko jatorrizko elementuak babestu behar direla azpimarratu dute Aranzaditik

Bizkaian dauden artean garrantzitsuena eta kontserbazio maila onena daukan gotorlekua da Galeakoa, Aranzadi Zientzi Elkarteak jakinarazi duenez. Getxoko Udalaren asmoa XVIII. mendean eraikitako forteari erabilera publikoa ematea da eta horretarako hura aztertzeko agindu zion Aranzadiri. Ikerketa lanak joan den maiatzean burutu zituen arkeologo talde batek eta emaitza osoak datorren irailean argitaratuko dituzten arren, Galeakoa Euskal Herriko XVIII. mendeko gotorleku militarren artean adibiderik onena dela aurreratu du Alfredo Moraza lan taldearen koordinatzaileak. 1742an eraiki zuten fortea, ziurrenik Abrarako sarrera babesteko asmoz, orduan ingelesen itsasontziak mehatxu garrantzitsua zirelako. Orain, aldiz, bestelako erabilera eman gura diote: jatetxea, itsas museoa, astronomia behatokia... ○

saiazgetaria



HOTELA

Roke Deuna 25
280808 Getaria
Gipuzkoa



...harria



...lehengo garaiak...



...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / t. (+34) 943 140 143

bertsoak > atxineko auskere

UKko erredakziora bertso batzuk heldu dira. Bertsoen gaia berri-berria da, edo zahar-zaharra, nondik begiratzen den. Kontua da bertsook Iruña-Veleian oraintsu topatutako euskal hitzen ingurukoak direla. Bertsoen egilearen gorabeheran, berriz, ez dakigu guzua handirik, «Urdinizar» ezizenaz sinaturik baitaude. Beste berezitasun bat ere badute bertso hauek: Uribe Kostako azpieuskalkian idatzitakoak dira. Guk grafia aldetik jaso ditugun modu-moduan argitaratzea pentsatu dugu. Horra bertsoak:

1
Iruña-Veleia da
Herri txikertxu bet
Arabalden dekune
Dineudelez, behintzet!
Lebabako herri dala
Pentza lei, baie, et, et!
Auskera zaharran barri
Dakar herri horrek !

3
Ganera horreek berbok
Ulertuten dire:
«ian, edan, lo» ta ingeru
Horren adibide.
Konklusino bat hor do
berbori begire:
Ederto bizten zalek
Gintzela argi de!

5
Erlejinon ingerun
Tope da berbarik:
«Joseph» eta «Miriam»
«Jeshus» ahaztu barik.
Nahi-eta geur elixek
Ez egon beterik
«Euskeldun fededune»
Dator atxinerik.

7
Parkatu hartu bozu
Txarren txiste hori,
Umoreaz gur'notzen
Heldu asunturi.
Halan zein holan horti
Zoyer da agiri:
Atxine euskeldunik
Bazan, bat edo bi!

2
Aspalditxuti dabil
Hamaka behargin
Bertako harri zaharrak
Aztertuten fin-fin.
Nozonoz topa deude
Baztar baten, erkin
Marmol zahar-zahar bat auskel
Berba batzuekin.

4
Kolorek bere badauz
Horreek berbon arten:
«urdin, zuri, gori» te
Poztu gara baten.
«Txuri-urdin», «Zuri-gorri»
Hasi lei pentsaten
Ez gabizela atzo
Goxeko kontuten...

6
Esaldi bet bere bai:
«Geure ata zutan»
Kirstino itxure
Emo'tzena, hatan.
Baie hor ikusi lei
Ikeratu plantan
Señetxu bet esaten:
«Geure aita sutan!»

8
Atxinekok atxine
Geur, ostera, geurkok
Izan gintzezen eta
Bagara auskeldunok.
Auskere nok salbe daun
Argi esan ber dot:
Sasoi txarrenen bere
Eutsi dotsegunok.

Urdinizar

EGUNKARIAK

prentsa eta aldizkariak

*nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!*

AJURIA TABERNA

Andrés Cortina 2

ALGORTA



AIXERROTA BHI

24 URTE EUSKARAZ IRAKASTEN

• TEKNOLOGIKOA
BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

aurreinskripzioa: apirillean / matrikulazioa: uztailan

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / 94 491 17 86



[erretratua]



"Hamar urte-edo nituenean, zaborra (ikatz) batzen genuen hondartzan, eta Neguriko aberatsei saldu, guk jan ahal izateko"

Antoni Cabeza Zarraga > Portu Zaharreko inor bada...

Elkarriketa hasi bezain laster, eskari bat egin digu Antoni Cabezak: ondo azpimarra dezagula bigarren abizena Zarraga daukala. Txiki-txikitatik Algortako Portu Zaharreko etxerik zaharrenean bizi da, enparantza aurrean. Jaio, aurreko eraikinean jaio zen, beraz Portu Zaharrean emon ditu bere bizitzako urte guztiak. Zenbat? *"Edade indefinitua daukadala ipin ezazu"*, erantzun digu, Espainiako folkloriko sekretuzale horien antzera. Hori bai, oraingo etxean sei urte daukanetik bizi dela esan digu, eta 70 daroazela bertan. Kontuak, norberaren esku. *"Gure aita arrantzalea zen -hasi da gogoratzen Antoni- eta gu, umetan, portura bajatzen ginen hari laguntzen; arraina honaino igotzen genuen, gero plazan saltzeko"*. Baina *progreso* arimabakoa alegatu zen, eta konturatu barik ia, arrantza desagertuz joan zen Algortako arrantzale portutik, ez bada nork bere txalupatxoan egiten duena. *"Noiz desagertu zen arrantza? Ez dakit ba! Denda handiak hasi zirenean izango zen! Lehen desberdina zen. Nik hamar urte-edo nituenean, 'zaborra' (ikatz) batzen genuen hondartzan, eta Neguriko aberatsei saldu, guk jan ahal izateko"*. Bizitza latzagoa zen, baina orduko giro onaren minik ez zaio falta Antoniri. *"Gosearen gosez, muskuiluak hartzen joaten ginen, gero gure etxean egosi eta bapo jan plazan, lagun guztiok alkarregaz"*, gogoratzen du *alkatesak*. Hala esaten diote batzuek behintzat, senarra auzoko alkatea izan zelako, Getxon halakorik zegoen garai batean. Oso aspaldiko garaia emoten du, baina ez pentsa... ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Unai Brea**

Zapia lepoan jaia gogoan

Han, hor eta hemen; gurean eta auzokoenean, urrun eta hur... Goiz, eguerdi, arratsalde zein gauez... Jaiak, festak, parrandak! Zer da ba uda jai barik? Fedebako askok betetzen dute agenda santuen izenakaz uda partean, alabaina, batzuek txosnen edota tabernen katekesiei zintzo jarraiki, beste batzuek puzgarri, olgeta eta pailazoen dotrinari segika, gainontzekoak dantzari, bertsolari, musikari eta abarren ebanjelioei begira... Bakoitzak gorputza eta arima noren alde dantzan ipini erabaki dezala, aukerak ez dira eta falta! Horra hor iradokizun xume batzuk, gehiago ere badira, baina denak ezin aipatu. Algorta, Erromo-Pinuenta, eta Portu Zaharra; bata edo bestearen lekukoa hartu, zeuk aukeratu, baina ahalik eta gehien gozatu!

Lehenengoak saninazioak!

Jai-giroan itoko dituzte algortarrek uztaileko azkenengo lau egun eta gauak

UZTAILAK 28, BARIKUA

- Pregoiaren irakurketa. 18:30. Txiki Otaegi.
- Koadrilen jaitsiera. Ku-Klūx fanfarriagaz. 19:00. Txiki Otaegi.
- Sardina jana. Hilak 28, 29, 30. 20:00. Salem.
- Jota, arin-arin txapelketa. 20:00. Teilagorri.
- Bertsolariak. Lujanbio, Iturmaga, X. Paya eta E. Arozena. 20:30.
- Pilota partida. Titin III-Gorri III eta Mtz. Irujo-Eulate. 22:00.
- Haurrentzako zinea. Hilak 28, 29, 30. 22:00. Zabala eskola.
- Kontzertuak. 23:00. Liqueen, Nun eta Sorkun (Txiki Otaegi). Aitzama (Kasinoa).
- Suzko zezena. 23:00. Amezti.

UZTAILAK 29, ZAPATUA-GAZTEEN EGUNA

- Sahara herriarekiko elkartasuna. 12:00etatik aurrera. Telletxe.
- Palestinagaz elkartasuna. 12:00. Telletxe.
- Haurrentzako margo lantegia. 12:00. Zabala.
- Igel-toka eta tiragoma txapelketa. 12:00. Alango.
- Bertsolariak. Aitor Mendiluze, Jesus Mari Irazu, Amets Arzallus eta Sustrai Colina. 13:00. Kasinoa.
- Bertso-bazkaria. Amets Arzallus eta Sustrai

- Colina. 14:30. The Piper's Irish Pub.
- Gazte olinpiadak. 17:00. Txiki Otaegi.
- Buruhandiak. 17:30.
- Koadrilentzako herri-kirolak. (ESAIT) 18:00. Txiki Otaegi.
- Umeen jaitsiera. Mamikiz Blai fanfarriagaz. 18:00. Txiki Otaegi.
- Trititixa emanaldia. 20:00. Teilagorri.
- Umeentzako txokolate jana. 20:30. Zabala.
- Trititixa emanaldia. 20:00. Teilagorri.
- Amnistiaren kalejira. 20:30. Txiki Otaegi.
- Kontzertuak. 23:00. H2OI, Brigada Criminal eta Des-kontrol (Txiki Otaegi). Tunnel 483 eta Last Night (Kasinoa).
- Suzko zezena. 23:00. Telletxe.

UZTAILAK 30, DOMEKA-UMEEN EGUNA

- Gaztelu puzgarriak, lantegiak, jolasak. 10:00. Getxo Antzokia.
- Gazteentzako saskibaloia. 10:30. Batzokia.
- X. Kantxa Kirol Moda- Herri krosa. 11:00.
- Umeen eskupilota txapelketa. Finala. 11:00. Batzokia.
- Koadrilen Umore Rallya. 12:00. Txiki Otaegi.
- Bertsolariak. Egaña, Jokin Uranga, F. Paia eta Xabier Silveira. 13:00. Kasinoa.
- Nagusien dantzaldia. 19:30. Zabala eskola.
- Gurasoen bazkaria. 14:00. Txiki Otaegi.

- Herri bazkaria. Presoak Euskal Herrira. 14:30. Teilagorri.
- Umeentzako herri jolasak. 14:30. Getxo Antzokia.
- Larraindantza eta erromeria. 20:00. Kasinoa.
- Kontzertua: No Drama, Sexty Sexters eta Kuraia. 23:00. Txiki Otaegi.
- Hip-Hop, Ragga gaua. Fenomenos de la naturaleza, Mc Txango, Mc Wis, DJ I'and I'... 23:00. La Cadena.
- Su artifizialak. Valentziako Turas piroteknia. 23:00.
- Suzko zezena. 24:00. La Cadena.

UZTAILAK 31, ASTELEHENA-IÑAKI DEUNA

- Iñaki Deunaren 61. txirridularitza zirkuitoa eta Rikardo Otxoa 6. omenaldia. 08:30.
- VIII. Txipiroi lehiaketa. 08:30. Biotz Alai.
- Euskal taldeen bilkura. 11:30. Kasune.
- Euskal dantzen agerraldia. 12:30. Telletxe.
- Bertsolariak. Elortza, Maia, Joxe Agirre eta Anjel Mari Peñagarikano. 13:00. Kasinoa.
- Iparraldeko herri-kirolak. 17:30. Telletxe.
- Eneko Caballero futbol txapelketa. 19:00.
- Nagusien dantzaldia. 19:30. Zabala eskola.
- Erromeria. Amaiur taldeagaz. 20:00 eta 23:00.
- Su artifizialak. Zaragozana piroteknia. 23:00.
- Suzko zezena. 24:00. Txiki Otaegi.



SAN INAZIO
ZORIONTSUAK PASA!!!
EUSKAL HERRIA, 22
ALGORTA



Adituak gara pintxoetan!!
Torrene z/g ALGORTA
T.: 94 460 50 42

SALSIDU TABERNA
Jaietan, giro jatorra!
San Inazio' zoriontsuak pasa!
Salsidu 9, ALGORTA

Erromo eta Pinuetakoak ostean

IX. Nazioarteko Ska-Reggae jaialdia hilaren 5ean izango da, zapatua

ABUZTUAK 1, MARTITZENA-HERRI EGUNA

- ▶ Erromo eta Pinuetako historia. Erakusketa. Hilak 1-5. Erromoko Erakusketa Aretoa.
- ▶ Haurrentzako lantegiak. 11:00. Cervantes.
- ▶ Bertso-trikipoteoa. 12:00. Txosnagunea.
- ▶ Herri olinpiadak. 16:00. Cervantes.
- ▶ Goitibeheren igoera. 21:30. Artazako aldapa.
- ▶ "Otxentera" diskoteka. 00:00. Cervantes.

ABUZTUAK 2, EGUAZTENA-TXUPIN EGUNA

- ▶ Xake txapelketa. 11:00. Nagusien Etxea.
- ▶ Umeentzako jolasak. 12:00. Cervantes.
- ▶ Pregoia eta txupina. 19:30. Ibaiondo eta Kresaltxu kaleen bidegurutzean.
- ▶ Dantza erakustaldia. 21:00. Txosnagunea.
- ▶ Haur zinea. 22:00. Cervantes.
- ▶ Kontzertuak. 23:00. Txosnagunea.

ABUZTUAK 3, EGUENA-KIROL EGUNA

- ▶ Igel-toka txapelketa. 11:00. Nagusien Etxea.
- ▶ Bertso saioa. Sestao eta Itzurbaltzeta bertso eskolen arteko dema. 16:30. Txosnagunea.
- ▶ I. Herri krosa. 19:45.
- ▶ Azoka. Bidezko merkataritza solidarioa eta herriko eskulangileak. Hilak 3-6. 18:00. Ibaiondo.
- ▶ Haur antzerkia. 18:30. Cervantes.
- ▶ Piruleta Militarra. Antzerkia. 22:00. Gobelaurre.
- ▶ Kontzertuak. 22:00. Txosnagunea.

ABUZTUAK 4, BARIKUA-KOADRILEN EGUNA

- ▶ Erromoko Otxotearren kalejira. 12:00.
- ▶ Herri kirolak. Harizulaketa. 19:00. Ibaiondo.
- ▶ Txotxongilo antzerkia. 20:00. Cervantes.
- ▶ Kontzertua. Arpa, gitarra, ahotsa. 20:00. Eliza.
- ▶ Bertso saioa. 20:30. Gobelaurre.
- ▶ Kontzertuak. 22:30. Txosnagunea.

ABUZTUAK 5, ZAPATUA-KOADRILEN EGUNA

- ▶ Arenas hiruko txapelketa. 16:00. Gobela.
- ▶ Mus txapelketa azkarra. 16:30. Pipi taberna
- ▶ Leioako musika banda. 17:30. Cervantes.
- ▶ Bertso jira. Irazu eta Etxahun Lekue. 19:30
- ▶ Sardina jana. 20:00. Txosnagunea.
- ▶ Bilbainada txapelketa. Hilak 5-6. 20:00. Gobelaurre.
- ▶ Ska-Reggae jaialdia. 21:30. Txosnagunea. (ikus. 43 orri)

ABUZTUAK 6, DOMEKA-TORTILLA EGUNA

- ▶ Iturri lasterketa. 06:30. Pi-pi aurrean.
- ▶ Nekazaritza azoka. 10:30. Geltoki plaza.
- ▶ Tortilla lehiaketa. 12:00. Erromo ikastetxea.
- ▶ Bingo eta herri diskoteka. 16:30. Ikastetxea.
- ▶ Herri kirolak. Trontzalariak. 18:00. Ikastetxea.
- ▶ Kale antzerkia. 00:30. Ikastetxea.

Portu Zaharrekoak amaierarako

"Antzara" altxaldien hitzordua abuztuaren 12an arratsalde izango da

ABUZTUAK 10, EGUENA-TXUPINAREN EGUNA

- ▶ Koadrilen jaitsiera. 19:00. Maria Cristina parketik.
- ▶ Sardina-jana. 19:00. Portu Zaharreko plaza.
- ▶ Pregoia irakurketa. 20:00.
- ▶ Haur zinea. 22:00. Pedro Bilbao plaza.
- ▶ Kontzertua: Ene Bada. 23:30.
- ▶ Suzko zezena. 00:00.

ABUZTUAK 11, BARIKUA-UMEEN EGUNA

- ▶ Sokamuturra (zutikako kukaina). 11:00. Portuko hondartza.
- ▶ Umeentzako jolasak. 12:30.
- ▶ Ume koadrilen jaitsiera. 17:00. Kasinotik
- ▶ Umeentzako kukaina. 18:00. Murrutzar txikian.

- ▶ Helduentzako kukaina. 18:00. Murrutzarra.
- ▶ Salto lehiaketa. 18:30.
- ▶ Sardina-jana. 19:00. Portuko plaza.
- ▶ Haur zinea. 22:00. Pedro Bilbao plaza.
- ▶ Koadrilen probak. 23:30. Aparkalekua.
- ▶ Suzko zezena. 00:00.

ABUZTUAK 12, ZAPATUA-SAN NIKOLAS

- ▶ Buruhandiak. 11:30
- ▶ Beteranoen estropada. 12:00
- ▶ Antzarak (jasoaldiak). 18:00
- ▶ Sardina-jana. 19:30. Portuko plaza
- ▶ Haur zinea. 22:00. Pedro Bilbao plaza
- ▶ Itxas Argia dantza taldearen erakustaldia. 22:30. Murrutzarra
- ▶ Akelarrea. 23:30. Murrutzarra.
- ▶ Kontzertua: Encarant. 23:30.

ABUZTUAK 13, DOMEKA-PIJAMA EGUNA

- ▶ Marmitako lehiaketa. 9:30.
- ▶ Umeentzako arrantza lehiaketa. 10:00.
- ▶ Umeentzako pintura lehiaketa. 10:30.
- ▶ Koadrilen rallya. 11:30.
- ▶ Lapikoak aurkezteko epea. 14:00. Etxetxu
- ▶ Herri kirolak. 12:00.
- ▶ Bertso saioa. Mañukorta, Fredi Paia eta Beñat Ugartetxea. 17:00. Portu Zaharreko plaza.
- ▶ Dantzagarriak eta dultze-meneoa. DJ Bull. 18:00. Portuko plaza
- ▶ Koadrilen lehiaketako sari banaketa. 21:30. Aparkalekua
- ▶ Haur zinea. 22:00. Pedro Bilbao plaza.
- ▶ Kontzertua: Amayur. 22:30.
- ▶ Txoa erre eta jaien amaiera. 00:00. Murrutzarra.



Taberna Berri

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tel.: 944 306 493

OSABIDE HORTZ KLINIKA

Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, beheko eskuina
ALGORTA
94 430 76 96



Torreña 2, ALGORTA
T.: 94 491 12 71

KONTXI

ZUZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara,
Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta
Gaztaietan!!

**Jai zoriontsuak
pasa!**

Alangobarri, 10 ALGORTA
T.: 94 491 02 93



GALEA

ASESORES, S.L.

AHOLKULARITZA
JURIDIKOA, FISKALA
LABORALA ETA KONTABLEA

Telletxe, 3 - 1. A • ALGORTA
☎ 94 460 95 12
Fax: 94 491 11 31



Getxoko Andra Mari

Zerbitzu Estazioa

Txartel hau
aurkezten baduzu
%50
merkeago
garbituko dizugu
autoa!!!!

Bilbo-Plentzia errepidea 18. km
Getxo / Tel: 94 430 15 00

[getxo]

Sahara herriaren alde

Getxo Pro-Sahara Atfalek eta Udalak "Oporrak Bakean" progamarako hitzarmena sinatu dute



laz gurean egondako ume taldea

Getxoko Udalak eta Getxo Pro-Sahara Atfal elkarteak "Oporrak Bakean" programa garatzeko hitzarmena sinatu dute, horren harira Udalak 6.588 euro bideratuko ditu egitasmoaren ekitaldiak eta zerbitzuak aurrera eramateko. "Oporrak Bakean" programaren bitartez eta bertan parte hartzen duten familia getxoztarren elkartasunari esker, Tindufeko (Arjelia) errefuxiatu kanpamenduetan egoera jasangaitzean bizi diren 11 umeek Getxon uda pasatzeko aukera daukate. *"Laz 9 haur etorri ziren, aurtien gehiago dira eta pozik gaude, baina kopuru horrek gona egin behar du ezinbestean; umeak hartuko dituzten familietako 6 berriak dim eta hori ere ona da, familia errepikatzaileez gain berriek ere parte hartzea"*, adierazi zuen Atfaleko Karmele Amurizak. "Oporrak Bakean" progra-

maren helburu nagusiak hauek dira: aisialdiko edo oporretakoa (kanpamenduetatik irteteko duten aukera bakarra delako), osasunarena (mediku azterketak, tratamenduak... jasotzen dituzte), sensibilizazioa (getxoztarrek Saharako herriaren egoera latzaren berri izan dezaten) eta hezkuntza (ume saharauiek liburuetan bakarrik ikusi dutena ezagut dezaten: itsasoa, errekek, ur-iturriak, dutxa, etab.). Euren egonaldian umeek Faduran kirola egiteko aukera izango dute, zaldian ibiltzeko, Trenaren Museora joateko, suhitzailen egoitza ikusteko, eta abar.

Bestalde, Getxoko Udalak bestelako diru-laguntzagaz ere egin du Sahara herriaren alde: "Jakien Karabanarako" 18.000 euro eman zituen, eta beste 7.000 euro Tindufen gertatuko uriolen ondorioei aurre egiteko. ○

EREAGAKO LANAK KALTEGARRIAK DIRELA DIO GREENPEACEK

Ereagako pasealekua zabaltzeko egingo dituzten lanek kostaldeko ekosistema kaltetzen dutela salatu du Greenpeacek. Jakinarazi duenez, kai berria eraikitzeko lau metro kenduko dizkiote itsasoari eta harkaitzak igeltsos estaliko dituzte. Halere, ez da hori nazioarteko erakundeak salatu duen gauza bakarra; izan ere, Getxoko hondartzak kutsatuta daudela nabarmetzen du (zeintzuk diren esan ez arren) eta Azkorri inguruetan 8.000 etxebizitza eraikitzearen kontra ere agertu da.

Folklore Jaialdia

Hilaren 21etik 23ra Senegal, Portugal eta Euskal Herriko loreak Getxon



Emanaldi guztiak gaueko 10:00etan hasiko dira eta doakoa da sarrera

XXII. Nazioarteko Folklore Jaialdia hartuko du Algortako Biotz Alai plazak hileko azken aurreko aste-akabuan. Euskal Herriaren lekukoa herriko Itxartu taldeak eroango du, Portugalgo ordezkari Areosako talde Etnografikoa izango da eta Senegalgo adierazgarri legez jardungo du Kora taldeak.

"Herri edo eskualde bateko ohitura, herri-literatura, sinesmen, kondaira, musika eta abarrek osatutako multzoa", hala azaltzen du hiztegiak folklorearen esangura, orduan Getxoko jaialdiak aipatu herrialdeetako sus-traiak ezagutzeko aukera paregabea eskainiko du. Hala ere, musika, dantza eta jantzi tradizio-zanalak izango dira herri horien errailetara

bidaia egiteko gidari nagusiak.

Emanaldi guztiak gaueko 10:00etan hasiko dira eta doakoa da sarrera. Lehenengo egunean, hilak 21, getxoztarren txanda izango da; biharamunean portugaldarrek izango dute oholtza betetzeko ardura; eta domekan Senegalegoek berotu beharko dute giroa.

Horrenbestez, Getxoko Folklore jaialdiak krabelinen iraultzaren herrialdea eta baobab zein kazien lurraldea hurbilduko ditu gurera, eta gure aurrekoen pausoak gaurkotuko ditu. Amaitzeko, antolatzaileek iragarri duten legez, "munduko kulturak biltzen dituen ikuskizun koloretsuagaz" gozatzeiko aukera eskainiko du Biotz Alai plazak. ○

ABIZENAK EUSKARAZKO GRAFIAN JARTZEKO KANPAINIA

Izenak eta abizenak euskarazko grafiaz jartzeko kanpaina abian jarri du Getxoko Euskara Zerbitzuak. Horretarako, udalerriko aholkularitzen zerrenda jarri du herritarren esku, lana burutu dezaten. Beraz, abizena euskaratu gura izanez gero, NAren fotokopia eta 5 euro besterik ez dira behar izango eta deiturak euskaraz nola idatzi behar diren jakiteko, Euskara Zerbitzuaren laguntza izango du gura duenak.



SAN LORENTZOKO AZOKA ETA KONTZERTUA

Abuztuaren 10ean, eguna, San Lorentzoko azoka egingo dute Algortako San Nikolas plazan. 10:00etatik aurrera, beraz, baserritarren produktuen erakusketa, salmenta eta txapelketa egongo da. Gauean, berriz, Biotz Alai plazan izen bereko abesbatzak emanaldia eskainiko du. Kontzertua 22:00etan izango da eta sarrera dohainik.

ANTZERKI ESKOLAN IZENA EMATEKO EPEA IREKITA

Amateur sailean izena emateko epea ireki du Getxoko Antzerki Eskolak. Lau taldetan banatuko dituzte ikastaroak: umeak (4-10 urte), gazteak (11-17 urte), helduak (17 urtetik gora) eta emakumeak (17 urtetik gora). Zuzeneko ikuskizunen teknikoaren eskolari dagokionez, argiztapen eta soinu teknikoentzako ikastaro bi eskainiko ditu.

Informazio gehiago: 944 303 194

cianoplan Reprografía

global printers

Villa de Plentzia 6. zbk
Antiguo Golf - Getxo
Tlf. 944 649 087
944 648 691
<http://www.cianoplan.es>

- Imprimatze eta plano kopiak •
- Kartelak kolorez eta z/b •
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •
- Fotokopiak kolorez eta z/b •
- Era desberdinetako koadernaketak •
- Plastifikazioak •
- Cd eta DVD grabaketak eta imprimaketak •
- enmarkaketak •



Alex Vinuesa > kirolaria

“92 kilometro gelditu barik korrika egiten ahaleginduko naiz lehenbiziko aldiz”

Uztailaren 21ean, Alex Vinuesa erandioztarrak orain arte izan duen erronka gaxenari egin beharko dio aurre: Erandioko bere etxetik, Arriagatik, Burgosko Montejo de Cebas herrira arte dauden 92 kilometroak korrika egitea, bakar-bakarrik gainera. 5:00etan irtengo da eta ailegatzeko 13 ordu beharko duela uste du korrikalariak.

—Korrika egitea ez da egiten duzun kirol bakarra...


—Bost urtegez hasi nintzen futbolera jokatzen eta 31 urtegez utzi nuen. Taldea utzi baino hiru urte lehenago hasi nintzen korrika egiten eta futbola utzi nuenean hasi nintzen lasterketetan parte hartzen. Gaur egun, areto futbolearen ere banabil, Erandioko Java taldean.

—Zergatik Montejo de Cebas?

—Aitaren sorterria da eta nik udak pasatzen ditut bertan. Orain dela urte batzuetatik daukadan erronka pertsonala da eta aurten modu serioan hartzea pentsatu dut. Halere, ez da neure burua probatzeko egin dudana gauza bakarra; joan den urtean, Santiago Bideia 30 egunean egin nuen-eta.

—Froga hau gaunditzeko entrenamendu berezirik egin behar izan duzu?

—Bai, orain bost entrenamendu egiten ditut



Areto futbolearen ere jokatzen du Alex Vinuesak

astean zehar eta hiru edo lau ordu ematen ditut korrika. Normalean, neguan zehar birritan entrenatzen dut futbol taldeagaz eta hirutan korrika, baina 45 minutuz gehienez. Horrez gain, kilometroa 3,45-4 minutuan egiten dut eta oraingoan, ordea, 6 minutuan, erritmoa askoz geldoagoa da.

—Gatxa izango da beharra eta kirola uztartzea, ezta?

—Nire kasuan ez pentsa. Gidaria naiz Bilbon eta 9:00etatik 14:00etara egiten dut lan,

beraz, denbora nahikoa daukat entrenatzeko. Siesta botatzeko tartetxoa ere hartzen dut.

—Zelan ikusten duzu zeure burua proba hasi aurretik?


—92 kilometro korrika egingo ditudan lehenbiziko aldia da, orain arte burutu ditudan lasterketak 18 kilometrokoak izan dira-eta. Halere, erresistentziari dagokionez ondo nago, erritmoa geldoa izango denez ez dut

«Etokizunean beste zorakeria batzuk egin gura ditut»

uste arazorik edukiko dudarik. Hankek ematen didate beldurrik handien, 13 ordu egin behar dudalako gelditu barik eta hirugarren orduan muskuluetan nekea nabaritzen hasiko naizen ikara daukat. Gainera, 13 kilometroko portu bat igo beharko dut!

—Etokizunerako proiekturik?

—Beste zorakeria batzuk egin gura ditut, bai. Halere, ezin dizut esan nire hurrengo erronka zein izango den, guztiz kontzentraturik nago proiektu honetan eta dena eman gura dut. Nonoiz mendiko maratona korrituko dut, baina horretarako errepidekoa egin behar dut lehenik eta behin. Oraingoz ezinezkoa zait, domekataran behar egiten dut-eta. Beraz, lanean turno aldatzen didatenean, orduan ahaleginduko naiz. Datorren urterako utzi beharko dugu! ○



Arasa

Sukalde eta Komunetarako Ekipamendu Osoa
Barnekaldeen zaharberritzeak eta dekorazioa



Sarrikobaso, 44 • 48990 Algorta
Tel/Fax: 94 430 11 91



Basolanak

- Zuhaitzen landaketa
- Podak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategiaren zainketa
DEITU!

T. 94 467 17 13

F. 94 467 42 41

ERANDIO (Bizkaia)

Mobila

Asier: 629 411 838

e-posta: basolanak@terra.es

XX. Folklore Jaialdia

Atzeritik etorritako zein hemengo folklore taldeek beteko dituzte **uztailean** Erandioko kaleak



Altzaga Kiroledegian egingo dute jaialdia

Uztailaren 27an XX. Folklore Jaialdia egingo dute Erandion. Hiru dira Altzaga Kiroledegian egingo den emanaldian parte hartuko duten taldeak: Kroaziako Zagreb-Marcovac, Txileko Bafochi eta Erandioko Altzaga auzoko Uztargi. Ekitaldia hasi baino ordu erdi arinago, 19:00etan, kalejira egingo dute, herriko kaleak euren musikaz eta dantzaz alaitzeko.

Orain dela 20 urte antolatu zuten lehenbiziko aldiz dantza jaialdia eta, ordutik, atzerriko makina bat taldek parte hartu izan dute: Venezuela, Hegoafrika, Europa ekialde eta beste hainbat lekutakoak... Hemen gohiturak kanpokoakaz nahastea da, hain zuzen ere, emanaldiaren helburua eta kontinente ezberdinetako dantzariak ekartzen

saiatzen dira beti ere.

Herriko taldeei dagokienez, Erandion hirur talde daudela ikusita, txandaka dantza egitea erabaki zuten antolatzaileek eta aurtengo Altzagako Uztargi taldearen ikuskizunaz gozatu ahal izango dugu.

Bisitariak, dantza egiteaz gain, herritarraz harremanetan jartzeko eta euskal usadioak ezagutzeko aukera ere badute. Horretarako, afaria egiten dute Udaleko langileakaz eta hemengo dantzariakaz Goikoako jatetxe batean. Parte hartzaileak denbora gutxigaz badatoz ere, herria ezagutzeko tartetxo bat ateratzen saiatzen dira. Ekitaldia dohainik da, kulturaz gozatzeko aukera paregabea galduko al duzu? ○

ERROKODROMOA JARRIKO DUTE AKARLANDA PARKEAN

Akarlanda parkeko zaintza dorrea errokodromo bihurtuko dute datorren urtean. 3,5 metroko hiru horma eta 10 metroko bat izango ditu, guztira 115 metro koadro. Horrez gain, eskalatzeko zortzi ekipo edukiko ditu, bakoitza honako lanabesakaz: soka bat, arnes bi, otso bat, mosketoi bat, sei express zinta eta kasko bat. Dorrearen inguruan kolpeak ekiditeko 60 metro koadro zoru jarriko dute eta erabiltzaileek dorrearen barnean gorde ahal izango dute materiala. Aurrekontua 58.115 eurokoa izango da.

IRAKURKETA BULTZATZEKO GIDAK ARGITARATU DITUZTE

Helduei zein umeei zuzendutako irakurgida bana argitaratu dute Altzagako eta Astrabuduko Udal Liburutegiek. Guztira, 1.400 gida bidaliko dituzte bazkideen etxeetara, udan zehar ere irakurzaletasuna sustatzeko. Argitalpenetan, zentro bietan aurki daitezkeen ondare bibliografikoa kontsulta daiteke. Gainera, Interneten bidez ere irakur daitezke gidook eta, horretarako, *Sakatu/Click*-a esteka bidali zaie posta elektronikoa duten bazkideei.


NAGUSIAK ZAINTZEN DITUEN JENDEA LAGUNDUKO DU UDALAK

Pertsona edadetuak zaintzen dituen jendea lagundu gura du Erandioko Udalak eta, horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiagaz hitzarmen bat sinatzeko ahalegina egingo du datozen egunotan. Askotan, senideak izaten dira zaintzaileak eta laguntza psikologikoa, tratamendu tekniken inguruko ikastaroak, orientazio zerbitzua, aholkularitza zerbitzua etab. eskaini gura du Erandiok. Bizkaiko Foru Aldundiak zerbitzu horiek guztiak eskaintzen dituen programa duela ikusita, beragaz lankidetzan hasteko pauso guztiak emango dituela agindu du udalbatzak.

ARLAN



Avanzada errepidea, 7 / 48950 ERANDIO (Bizkaia)
Tel.: 94 471 12 44 / www.arlan-ser.com / arlan@arlan.biz



739 PERTSONEK ESKATU DUTE INFORMAZIOA TURISMO GUNEETAN

Ekainaren 17tik 30era, 739 pertsonek (Erresuma Batukoak, Holandakoak, Frantziakoak, Espainiakoak eta Bizkaikoak gehienak) informazioa eskatu zuten Sopelako udalerrian jarri dituzten turismo guneetan. Turismo Bulegoak 186 bisitariri lagundu zien eta argitutako zantzak nagusiak lo egiteko eta bisitatzeko lekuak izan ziren. Bestalde, Larrabasterran jarritako turismo guneak 571 bisitari hartu zituen. Kasu horretan, garraibideak eta ibilbide turistikoak izan ziren argitu beharrekoak.

ERDI AROKO AZOKA EGINGO DUTE ABUZTUAN

Abuztuaren 4tik 6ra Erdi Aroko Azoka egingo dute Sopelan. Azoka udaletxe alboan jarriko dute eta, 1000 legez, hainbat artisau bilduko ditu. Azoka antolatzen duten zazpigarren urtea da honako hau eta nahiko finkatuta dagoela uste dute antolatzaileek. Goizean zabalduko dira 50-60 postu bitartean hartuko dituen azokaren ateak eta gauean zarratu. Aurrekoetan bezala, Erdi Aroko jantziak, kale animazioa, zirku-jolasak eta arku-jaurtiketa izango dira azokan eskainiko dituzten ikuskizunetako batzuk.

DORLETA ZORRILLA TXIRRINDULARIA, ESPAINIAN TXAPELDUN

Dorleta Zorrilla txirrindulari sopeloztarrak Espainiako Kopa eskuratu du gazteen mailan, ekainean Murtzian egindako lasterketan. Ugeraga taldekoa da Zorrilla eta esan beharra dago sopeloztarrarena ez dela Ugeragak lortu duen garaikur bakarra; izan ere, Galdamesen, Mungian eta Sopelan egindako Bizkaiko Erlojupeko Txapelketan garaile irten zen. Honakoak dira proba horietan dominak eskuratu zituztenak: Igor Moratalla, Jurgen Jabato, Miguel Minguez eta Iker Mejuto.

Loroñoko kokaguneak

aurrez aurre ipini zituen Udala eta Txosna Batzordea **sanpedroetan**



Txosna Batzordekoek Loroñora zergatik ez ziren joan azaltzeko emandako prentsaurrekoa

Ur-nahasiak izan ziren sanpedroetan, eta jaiak ziprztindu zituen auzia azaltzea ez dago sobera. Azken urteotan Sopelako Udalak jaien antolaketa enpresa pribatuaren esku utzi ei duenez, urte hasieran herriko hainbat kolektibo batu eta Sopelako Jai Batzordea eta Txosna Batzordea osatu zituzten. Kostata Udalak batzordeak onartu eta bera ere Jai Batzordean parte hartzen hasi zen. Alde bata eta besteak jarritako baldintzak adostu eta egitaraua osatu zuten. Alabaina, Udalak txosnagunea ohiko lekuan paratu beharrean Loroñora aldatzea erabaki zuen, horrek sortu zuen haustura. Bi taldek izan ezik, Txosna Batzordea osatzen duten gainontzekoek (Munarri, Talo-

burni, Amarratsak, Peñatxuri eta Sopelako Auzo elkarteak) gune berria ez onartzea erabaki zuten: "Txosnek herriaren erdigunean egon behar duetako, errepide arriskutsua duetako alboan, lubeta arriskutsua dago eta egurrezko hesiek ez duetako bermerik ematen...". Udalak lekua egokia zela, ipinitako baliabideak nahikoak zirela, "auzokideei atsedean eman behar zaiela eta errepide ondoan egoteak jendea erakar" zezakeela argudiatu zuen. Dena dela, "oztopo guztien gainetik" 3 txosna ipini zituzten udaletxeko plazan, isunak egon zitezkeelako abisuagaz. Ordutik, berri bakarrenetakoa da Larrabasterrako jaien ostean bi aldeak berriro batzartuko ei direla. Ura ez dago bare... ○


LAIK Taberna

Bentatxu, 2
48600 Sopela
Tlf. 94.6760328

Zatoz
gure tabernara!

Mikel Begoña > komikilaria

“Matxitxako lurmuturreko itsas gudaren gaineko komikia gure kabuz argitaratzeko asmoa dugu”



Lerroaren muturra komikia hurrengo helbidean ikus daiteke: www.euskalnet.net/pozokoetxe

Orain dela 3-4 urte ezagutu zuten elkar Mikel Begoña sopeloztarrak eta Ricardo Sendra argentinarrek. Bigarrenak lehenengoari bere irudiak eta marrazkiak erakutsi zizkion, ordutik bien eskuak batu, bata irudigile eta bestea gidolari, eta komikiaren munduan barneratu ziren.

Bestalde, laster beteko dira 70 urte Matxitxako lurmuturreko itsas guda gertatu zenetik, eta horren harira jaio zen bikote komikigilearen lehenengo asmoa, gertaera horren historia egokitu eta komiki bat plaza-ratzea. “Oso zaila zela ikusi genuen, komikiaren merkatua oso txikia da eta ez zegoen inor interesaturik; orduan erabaki genuen lehiaketa batzuetan parte hartzea bidea egiten joateko”, azaldu du Historia ikasketak egin dituen Begoñak. Izan ere, euren lanen ezaugarrietako bat “historia eta komikia buztartzea da, hala istorioak sortuz”. Osterantzean, pauso irmoz egin dute bidea, 3 komiki lehiaketatar aurkeztu dira, bitan garaile eta bestean azken aukeratuen artean gelditu dira. Euskaraz dira lan guztiak: *Atzoko partiduak*, *Lerroaren Muturra* eta *Askatasun hegala*. “Lehenengoa 2 aguraren oroitzapenak dira, ba-

tak Athleticean jokatu zuen eta bestea gerran eta atzerrian ibilitakoa zen; bigarrena immigrazioaren gaineko da; eta azkena gerra zibilean hegazkin gidari errepublikar baten erorketaren ingurukoa”, jakinarazi du sopeloztarrak. Euren lanaren estiloari buruz zera dio: “Dokumentazio aldean piloa lantzen dugu, gertakizunak ahalik eta zehatzen mantentzeko, gero istorio pertsonalak-eta asmatzen ditugu; irudia klasikoa da, Ricardok eskuz egiten ditu, akuarelaz; Matxitxakori buruzko “Beruneko itsasoa” komikinako material piloa batu dugu: argazkiak, elkarrizketatu dugu bizirik geratzen

«Euskarazko komikiakaz, aurkeztutako 3 lehiaketetatik 2 irabazi dituzte»

den bakarrenetako bat... komiki nahiko errealista izango da”. Udagoienean komiki hori euren kabuz argitaratzea da asmoa, Durangoko Azokan edo Getxoko komiki Aretoan aurkezteko. Baina gurean 9. Artearen merkatur dagoen moduan dagoela (baldin badago), dema handia dute esku artean, “gure kabuz argitaratzea abentura bat izango da, eta ez dakit zelan irtengo garen”, dio Begoñak. ○

DIDAK hamilton IDIOMAS

**Ingelesa, Frantsesa
eta Alemana**

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa, 6 / 48600 Sopela.

Tel: 94 676 30 12

didakhamilton@euskalnet.net

4 bide
pinturak



BONDÉX

DYRUP

Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA

Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

**ANDER
DEVNA
IKASTOLA**

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. SOPELANA

Tfnoa.: 94 676 02 66

Email.: sopela@ikastola.net

Nagusien Etxe berria

Aspaldiko **“ametsetako bat”** bete du gorbemu taldeak

Sabino Arana kaleko osasun zentro ohiaren eraikina goitik behera zaharberritu eta aspaldiko **“ametsetako bat”** gauzatu du Berangoko Udalak: Nagusien Etxe berriak iragan hil amaieran zabaldu zituen ateak. Udalak emandako datuen arabera 1.200 berangoztarrek dute 60 urte baino gehiago eta Berangoko alkate Miren Dobaranek azaldu duenez, **“aurreko egoitzak ez zituen euren beharrianak betetzen”**. Udalak 750.000 euro bideratu ditu nagusien topaleku berria altxatzeko, eta besteak beste bingoan, karta jokoa, edota sarean ibiltzeko aretoak dauzka. Inaugurazio eguneko irudiak dira hauek:



Loteria Sopela

Iparragirre 6, Sopela



Txupina aireratzear dago!

Santa Ana eta Santo Domingo bata bestearen atzetik datoz, ahal duenak indarrak batu eta... gozatu gogoz!

[egitarauak]

SANTA ANA

UZTAILAK 24, ASTELEHENA

- ▶ Txupina. 18:30
- ▶ "Munduaren inguruan bidaia magikoa", Oliver magoa. 19:00
- ▶ Haur jolasak (ginkana). 20:00
- ▶ Kontzertuak: Argamboys eta Berri Txarrak. 23:00

UZTAILAK 25, MARTITZENA

- ▶ Plater-tiroa. Artetxutes. 09:00
- ▶ Haur parkea. 12:00-14:00 eta 17:00 eta 20:00
- ▶ Zaldi probak. 18:00
- ▶ Play-back lehiaketa. 20:00.
- ▶ Bertso saioa: Elortza, Etxahun Lekue, Onintza Enbeita eta Miren Loizaga. 20:30.
- ▶ Erromeria: Amaiur. 23:00

UZTAILAK 26, EGUAZTENA

- ▶ Aitite eta amamentzako hamaiketako eta dantzak. 13:00
- ▶ Zirkus Mirkus ikuskizuna. 20:00
- ▶ Erromeria: Arantxa eta Pantxoldeagaz. 21:00

SANTO DOMINGO

ABUZTUAK 4, BARIKUA

- ▶ Txupina. 12:00
- ▶ Gorriti eta bere animalien ikuskizuna. Lantarte. 19:00
- ▶ "Action" kaleko antzerkia. 20:00
- ▶ Idi probak. 20:00
- ▶ Kontzertua: Patada en la papada eta Obrint pas. 23:00

ABUZTUAK 5, ZAPATUA

- ▶ Mus txapelketa. 17:00
- ▶ Harri zulatzaileak. Udaletxea. 19:00
- ▶ Sagardotegi festa. 20:00
- ▶ Erromeria: Trikiño. 23:30

ABUZTUAK 6, DOMEKA

- ▶ Bitsaren festa. 13:00
- ▶ Potxin eta Patxin pailazoak. 18:00
- ▶ Herri kirolak eta txokolate-jana umeentzat. 19:30
- ▶ Erromeria: Mariachis Real Azteca. 21:00

* OHARRA: Leku arazoak direla eta, interesgarrien iruditu zaizkigun ekitaldiak solik sartu ditugu

KARABIGANE ETA KARABIAZPI AUZOAK ERABERITUKO DITUZTE

Karabigane eta Karabiazpi auzoak eraberritzeko lanak esleitu dituzte datozen egunotan Berangoko Udalak. Hainbat lan burutuko dira: saneamendua hobetu, hari elektrikoak lurperatu, altzariak jarri, arbolak landatu eta espaloiak zabaldu. Gainera, inguru horretan dagoen plaza oinezkoentzat bakarrik jarriko dute, bertan aparkatzen duten ibilgailuek etxeetako atariak oztopa ez ditzaten. Bestalde, Udaleko bulegoak berritatzeko lanen bigarren fasea hasi zuten joan den ekainaren 19an. Ezinduentzako arrapala eta igogailu bat, batzar areto bat eta alderdientzako bulegoak jarriko dituzte udaletxean.

BERANGOKO II. NAZIOARTEKO FOLKLORE JAIALDIA

Abuztuaren 18tik 20ra, Berangoko II. Nazioarteko Folklore Jaialdia antolatuta du Simon Otxandategi Dantza Taldeak, Udalaren laguntzagaz. Abuztuaren 18tik 20ra Alemaniako, Poloniako eta Euskal Herriko dantzak izango ditugu ikusgai; 20an, berriz, Mexikoko eta Zuberoko taldeek eskainiko dute emanaldia. Ikuskizunak Berangoko Lantzarateko zelaian jarriko den karpa batean egingo dituzte eta dohainik izango dira.

MAKAILO EGUNA EGINGO DUTE ABUZTUAREN 13AN

Abuztuaren 13rako Makailo Eguna antolatu dute Berangon. Joan den urtean 52 bat lapiko aurkeztu zituzten eta aurten ere antzeko kopurua zenbatzea espero dute antolatzaileek. Izena eman gura duenak abuztuaren 9ra arte izango du, telefono honetan: 677 556 077. Halere, bigarren aukera bat egongo da abuztuaren 11 arte udaletxeko landetan. Aurten, gaztetxoek ere parte hartzeko aukera izango dute. Jakia eta lapikoa antolatzaileek beraiek jarriko dituzte eta begiraleen laguntza izango dute.



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitara, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tlf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

UDONDO TABERNA

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

BABES OFIZIALEKO 104 ETXEBIZITZA ERAIKITZEN HASIKO DIRA IRAILEAN

Babes ofizialeko 104 etxebizitza eraikitzen hasiko dira irailean Pinosolo auzoan eta lanek 30 hilabete irautea aurreikusten dute. Horiek eskuratzeko zozketa, berriz, urriaren 2an izango da, Sakoneta kiroldegian. Las Mercedarias ikastetxearen ondoan dagoen lursail batean egingo dituzte eraikinok. Horrez gain, urte amaieran 1.400 metro koadroko Skate Parka inauguratuko duela jakinarazi du Udalak. Lanetarako aurrekontua 300.000 eurokoa izango da.

I. LIBURUJATUN IRAKURKETA LEHIAKETAKO SARIAK BANATU DITUZTE

Liburujatun Irakurketa Lehiaketako sariak banatu dituzte eta honako hauek izan dira irabazleak: euskaraz, Juan Iturbe (lehenbiziko saria), Flora Gomez (bigarren saria) eta Nora Axpe (hirugarren saria); gaztelaniaz, Roberto Moll (lehenbiziko saria), Virginia Bugallo (bigarren saria) eta Jose Ibargurengoitia (hirugarren saria). Sari nagusia Elkar Megadendako 150 euroko bonoa eta Artaza hotelean afaria izan da. Lehiakideek hiru liburu irakurri behar izan dituzte eta horien inguruko galderak erantzun.

ERAKUSKETA KOLEKTIBOA KULTUR LEIOAN

Uztailaren 3tik hasita 23ra arte, erakusketa kolektiboa antolatu dute Kultur Leioako erakusketa gelan. Gazteen artelanak erakustea da abenduan martxan jarri zuten egitasmoaren helburua eta orain horren emaitza izango dugu ikusgai. Erakutsiko diren lanak epaimahai batek aukeraturakoak dira: Roberto Alcaldere eta Ana Isabel de Miguelsen margolanak; Juan Ortaren eskulturak eta Kepha Borderen argazkiak. Erakusketa gela 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara egongo da irekita.

Tiroak botatzen

Erreleboaren bila dabilta Leioako **Plater-tiro**
eta **Ehizarako** Kirol Elkartekoak



Iñaki Bilbao eta Andres Bilbao elkarteko presidenteorde eta presidentea, hurrenez hurren

Leioako Plater-tiro eta Ehizarako Kirol-Elkarteko Iñaki Bilbao presidenteorde eta Andres Bilbao presidenteagaz izan gara oraingoan eta azken horrek eman digu elkartearen beharizanen zein asmoen berri.

Herriko jaietan ohikoa zen plater-tiroko ekintzak antolatzea eta, denboragaz, baimenak eta segurtasun neurriak bermatzea garrantzitsu bilakatu zenez, 1987an elkar-tea sortzea erabaki zuten. "90ean, tiroak botatzeko zelaia eraiki genuen eta, 95ean, ehiza (platerakaz) modalitateko beste zelai bat. Horrez gain, bazkideentzako lokala daukagu", azaldu du Andres Bilbao. Gaur egun, 150 bat pertsonak osatzen dute elkar-

tea, horietatik 21 gazteak dira. "Gure erronka garrantzitsuen momentu honetan errelebo ziurtatzea da, baina horretarako gugaz bat egin gura duten gazteak topatu behar ditugu. Nahiko talde ona osatu dugu oraingoz eta lehiaketetan zerbait lortu ahal dugula uste dugu", dio taldeko presidentea. "Antzinean errazagoa zen, tiragomaz eta txinbenagaz jolasten genuen-eta. Gaur egun, ordea, gatzagoa da eta, horregatik, kirol hau gazteeni erakutsi gura diegu. Oso irakasle onak ditugu, Maria Mentsaka munduko txapel-duna besteak beste. Gurasoen baimena izanez gero, 14 urteagaz has daitezke". Beraz, gazteek atek irekita dauzkate kirol horretan. ○

SAN INAZIO
AUTOESKOLA
1951n SORTUA

LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45
ALGORTA

ERROTULOAK



**ERA GUZTIAKOKO
ERROTULOAK eta
INPRESIO DIGITALAK**

egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

Gorka Vacas > biologoa

Ontziren Gelaren helburua **ingurugiroan heztea** eta naturarekiko **sentsibilizazioa** da



Vacasek azaldu legez, hiru erakusketa daude ikusgai Ontziren Gelan

Zortzi urte daroaz zabalik ingurugiroari begirako Bizkaiko Foru Aldundiak Plentzian paratutako aretoak. Ontziren Gela legez baitaiatua, urtean zehar bere eskaintza hezkuntza zentroei edo ume taldeei zuzenduta dago; udan, oster, bertaratzen diren guztiek aurkituko dituzte atak zabalik.

Bertoko arduradun Gorka Vacas biologoaren berbetan Gelaren helburu nagusia gutxi gorabehera hurrengo litzateke: "Naturarekiko sentsibilizazioa bultzatzea, bertaratzen direnak ingurugiroan heztea da helburua; jendea erakustea inguruotan bizi diren espezieak zeintzuk diren, eta gutxinaka, espezie horiekiko askoz ere sentikorragoak bihurtzea, jarraia hobea edota errespetu handiagoa izan dezaten. Osterantzean, beste asmo batzuk ere badira, ikasleen arteko elkarkidetzak sustatzea, azken finean, bizikidetzarako minimoak, baloreak erakusten ere ahalegintzen gara". Horretarako, 3 erakusketa daude ikusgai. "Baleen kostaldea, Euskal Herrian baleen ehizaren gainea da, eta panelen bidez azal-

tzen da zelan ehizatzen zituzten, animalia zelakoa den, etab. "Murgildu zaitez itsas ekosistema uretarretan" alorreko 14 bat akuariumetan ikusgai daude Kantauri, Amazonas, Kongo eta Asiako ekosistemak. Azkenik, "Bizia itsasoan" munduko itsas animalien maskorrak, arrain "disektatuak", itsas-izarak, txangurroak, krustazeoak etab. erakusten dira". Horrez gainera, egunero (16:30) bideo emanaldia eskaintzen dute, antzerkia egoten da astean behin (bariku edo zapatu), Garbibusaren bisita izaten dute (hileko lehen astea), etab. ○

Jakingarri

- **Noiz:** Uztailetik irailaren 10era arte. Gainontzeko denboraldian hezkuntza zentroentzako bisitaldiak.
- **Ordutegia:** 12:00-14:30 eta 16:00-20:00. Aste-akabuetan 12:00-14:30 eta 15:30-20:00
- **Non:** Ondarreta pasealekua, Plentzia.
- **Sarrera:** Doan
- **Zer:** Ingurugiroagaz lotutako erakusketak, bideo emanaldiak, antzerkia, liburu txokoa...



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ

T: 94 676 07 15

BASARTENA




URDULIZ

Teléfono: 948 761 128

AJURIA
TABERNA

Andrés Cortina 2

ALGORTA



BASALBO BASERRIA

JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbobaserria@yahoo.com

ETXEBIZITZAK ERAIKITZEN HASI DIRA URDULIZKO ELORTZA BEKOAN

Urdulizko Elortza Bekoa auzoan 400 etxebizitza eraikitze lehenbiziko fasea hasi dute dagoeneko. 78 etxe altxatzeko urbanizazio lanak burutuko ditu orain Neinor enpresak. Hiru solairuko eraikinak egingo dituzte eta proiektua hiru urtean amaitzea espero dute.

WIFI SISTEMA ESKAINIKO DU GORLIZKO KULTUR ETXEA

Interneten kable barik nabigatzeko wifi sistema eskainiko du Gorlizko kultur etxek. Horren bidez, teknologia egokia duten ordenagailu eramangarriak, agenda elektronikoa edota sakelako telefonoak dituzten erabiltzaileak sarean sartu ahal izango dira. Horretarako, gura dutenek doako bonga eskatu beharko dute liburutegian.

DOAKO PARKINA ERAIKI DUTE LEMOIZKO GASITUASEN

Gasituasen eraikitako doako aparkalekua erabil daiteke dagoeneko, lanak zeharo amaituta ez dauden arren. Aparkalekuak 3.671 metro koadro dauzka eta 31 ibilgailu sartzen dira. Uda amaitzen denean azkeneko ikutuak emango dizkiote: arbolak landatu, altzariak jarri... Azpiegiturak 137.529, 62 euroko aurrekontua eduki du.

GORLIZ

Artisautza eta nekazal azokak hilaren 23 eta 25ean



45etik saltokitik gora ipiniko dituzte Artisan Azokan

Gorlizko kaleak bere egingo dituzte baseritar eta eskulangileek hil amaieran. Izan ere, hilaren 23an antolatuko dute Artisan Azoka, eta hilaren 25ean Nekazaritza Azoka.

Artisan zein eskulangileek sortutako zeramika, beira, larru, egur, zilar eta abarrez egindako apaingarri, produktu zein oroigarriak erosteko aukera izango du Artisan Azokara hurreratzen denak. Ipiniko dituzten 45etik gora erakusmahaitan ziur ez direla faltako, aipatutakoez gainera, bitxiak, lorak, xaboi naturalak eta beste hainbeste. Merkatua Jose Antonio Agirre enpa-

rantzan eta inguruko kaleetan zehar paratuko dute, goizez eta arratsaldez egongo da zabalik eta guxi gorabehera hurrengo ordutegia izango du: 10:00-14:00 eta 16:00-19:00.

Bestalde, Santiago egunean ohiko Nekazaritza Azokaren hitzordua da. Baseritarren produktuak erosi gura duenak arin ibili beharko du, azoka goizez bakarrik egongo da eta zabalik. Paratuko dituzten mahaietan gaztaia, txakolina, barazkiak, euskal pastela, fruitak, lorak... egongo dira salgai, fresko-fresko gainera, beraz, gura duenak badaki! o

aldai

**TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK**

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

**VASA**
25º ANIVERSARIO
URTEURRENA
1981 - 2006



KLIMATIZASIO
INGENIARITZA
INSTALASIOA
MANTENIMENDUA
Otxandategi tar Simon 114
48640 Berango, Bizkaia
Tel. 94 668 15 51
Faxa. 94 66829 92
e-mail: vasa@vasa.biz

Uzt. 21 - abu. 26

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

PLENTZIA

- **Pilar Campanaren margolanak.** Goñi Portal. Uztailaren 30era arte.
- **Carmen Bustinzaren margolanak.** Goñi Portal. Abuztuaren 1etik 15era arte.
- **Elisabete Mendizabalen margolanak.** Goñi Portal. Abuztuaren 16tik 31ra arte.

LEIOA

- **2006ko erakusketa kolektiboa.** Kepha Bore, Juan Manuel Orta Valdes, Ana Isabel de Miguel eta Roberto Alcalde. Kultur Leioa. Uztailaren 23ra arte.

URDULIZ

- **Zur eta ehoziri lanak.** Kultur Etxea. Uztailaren 28ra arte.

ZINEMA

PLENTZIA

- **Flores rotas.** Helduentzako zinea. Goñi Portal. Uztailak 21, barikua. 22:15.
- **Buenas noches, y buena suerte.** Gazteentzako zinea. Goñi Portal. Uztailak 22, zapatua. 18:00.
- **La vida secreta de las palabras.** Helduentzako zinea. Goñi Portal. Uztailak 28, barikua. 22:15.
- **Un padre de cuidado.** Umeentzako zinea. Goñi Portal. Uztailak 29, zapatua. 18:00.

ANTZERKIA

ERANDIO

- **Cantervilleko mamua.** Umeentzako antzerkia euskaraz. Altzaga kiroledegia. Uztailak 28, barikua. 11:30.

BERANGO

- **Action.**



► **PAELLAK**

Getxoko jai handia heldu da berriz ere!

51 urte dira Iurena elkarteak paella txapelketa lehenbiziko aldiz antolatuta zuela. 1958an hartu zuen Itxas-Argia elkarteak lekukoa eta ordutik ez du inoiz kale egin. Gaur egun ehunka pertsona biltzen dira Aixerrotako landetan paella erraldoiak dastatu eta jaiatzeko asmoz. Aurten ere, makina bat ekintza prestatu dute antolatzaileek. 8:00etan txistulariek kalejira egingo dute Getxon eta 10:30ean izena eman beharko du paella txapelketan parte hartu gura duenak. 12:00etan, berriz, Itxas-Argiako umeek dantza erakustaldia egingo dute Aixerrotako landetan eta, ondoren, bertsolarien emanaldia egongo da. Jateko ordura arte, 15:00ak arte alegia, paellen erakusketa egongo da eta, 17:00etan, sari banaketa.

• **Non:** Aixerrotako landak • **Noiz:** uztailak 23 • **Ordua:** 10:30

Eskola. Abuztuak 4, barikua. 20:00.

MUSIKA

GETXO

- **San Lorentzoko kontzertua.** Biotz Alai abesbatzaren emanaldia. Algortako Biotz Alai plaza. Abuztuak 10, eguna. 22:00. Sarrera doan.

ERANDIO

- **The Uski's, Urgabe eta Ene Bada.** Astrabudua. Abuztuak 9, eguztazena.

- **Kaotiko, Porretas eta A68.** Astrabudua. Abuztuak 11, barikua.

BERANGO

- **Berri Txarrak eta Argamboys.** Uztailak 24, astelehena. 23:00.
- **Patada en la papada eta Obrint Pas.** Abuztuak 4, barikua. 23:00.

BESTEAK

GETXO

- **XXII. Nazioarteko Folklore**

Jaialdia. Algortako Biotz Alai plaza. Uztailaren 21etik 23ra. 22:00. Sarrera doan.

► Udako liburutegiak.

Areetako Geltokia plaza, abuztuaren 25era arte. Algortako Geltokia plaza eta Andra Mariko Sarri plaza, abuztuaren 31ra arte. 12:00-14:00 eta 17:30-20:30.

► San Lorentzoko azoka

Algortako San Nikolas, Biotz Alai eta Getxo Antzokiko plazak. Abuztuak 10, eguna. 10:00.

ERANDIO

► XIX. Lutxanako ikurrina.

Estropadak. Lutxana. Uztailak 22, zapatua. 13:00.

► San Lorentzo jaiak.

Astrabudua. Abuztuaren 9tik 13ra.

► IV. Musikalean.

Magia, kalejira, fanfarreak, erraldoiak, buruhandiak... Astrabudua. Abuztuak 11, barikua. 18:00.

► Andra Mari jaiak.

Erandio Goikoa.

Abuztuaren 12tik 15era.

► XVIII. Nekazal Azoka.

Erandio Goikoa. Abuztuak 15, martitzena.

► Santimamiko jaiak.

Santimami. Abuztuaren 17tik 19ra.

► San Agustin jaiak.

Altzaga. Abuztuaren 24tik 28ra.

BARRIKA

► Txirindulari lasterketa.

Goierrri. Abuztuak 20, domeka. 16:00.

LEIOA

► Pinuetako jaiak.

Abuztuaren 1etik 6ra arte.

► Santimamiko jaiak.

Abuztuaren 17tik 19ra arte.

► San Bartolome jaiak.

Abuztuaren 24tik 27ra arte.

BERANGO

► Santa Anako jaiak.

Uztailaren 24tik 26ra arte.

► Santo Domingoko jaiak.

Abuztuaren 4tik 6ra arte.



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA




Asto probak

Joan den uztailaren 9an asto probak egin zituzten Erandioko Goierriko San Kristobal auzoan. Guztira, zazpi astok hartu zuten parte txapelketan. Eguraldi oso ona egin ez bazuen ere, bera izugarria izan zen eta animalien lana zaildu zuen horrek. Jaiak direla-eta, urtero antolatzen dute euskal kulturagaz zerikusia duen ikuskizun bat: herri kirolak, pottoken erakustaldia... Inguruko baserrietako jendeagaz bat egin eta egun ezin hobia igarotzeko aukera aproposa.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Aurrez aurre

Jokin Aspuru

Gizakia eta itsasoa historiaurretik
ibili dira etenbako lehian. Pertsona
olatuei gailentzen ahalegindu da
behin eta berriz, baina itsasoko
danbatekoak irabazi ditu partida
guztiak. Oztopoak oztopo, aurre
egiten dion jendea badago oraindik,
argazkiko mutila kasu. Aurre egin
ala ur zakarren besoetara bota? Hori
da irudiak sortzen digun zalantza;
lurraz nazkaturik hondoaren
iluntasunera babes bila joan denik
ere izan da-eta...





Izen-abizenek ez eze, begi urdinen gardentasunak ere salatzen du Christian Reinicke 43 urteko getxoztarraren alemaniar jatorria. Aita du hangoa, "baina bera ere Bilbon jaioa". Gaur egun ez dauka harreman handirik orain dela aste batzuk futbol planetaren hiri-buru izan den herrialdeagaz: bertako hizkuntza menperatzen du, gitxitan erabili arren, eta anaia bat dauka München inguruan. Han, segurantzean, primeran ahoskatuko dute Christian Reinickeren abizena; uribekostarrantzat gaxtagoa da noski, eta horregatik *Reinike* erabiltzen dugu jeneralean, *Rainike* jatorraren orde. Inoiz, elkarizketa honen protagonista ahalegintzen da ingurukoei halako kontutxoak argitzen, baina gehiegi tematu barik. Utz ditzagun hala ere filologia kontuak, horiek ez dira-eta honaino ekarri gaituztenak, Reinickeren hamaika eginkizunak baizik. Gauza askotan ibilitakoa dugu, eta ibiltzen da oraindik ere; denak aipatu gura genituen, baina akabuan -elkarizketa idazteko momentuan konturatu ginen, honelakoetan ohi denez- ekologismoaz jardun genuen gehien. Azken batean hori da, berak aitortu bezala, Reinickeren "pentsakeraren oinarri sendoenetako bat". Haren erretratua motzegia gerta ez dadin, horra, zelangura ere, beraren curriculum osatzeko zenbait datu: Arte Ederretan lizentziatua, margolari moduratan bat edo beste egindakoa, Leioako Barandiaran institutuan Arte Adierazpen irakaslea, Portu Zaharreko jaien kartel lehiaketaren antolatzailea, Ezker Abertzaleko zinegotzi ohia Getxon...

Christian Reinicke

Testua: **Unai Brea** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Getxoko zinegotzi izandakoa zaitugu, horretarako aukera eduki izan duzun arte behintzat...

—Egia esateko, azken hauteskundeetan ez nintzen zerrendan egon. Atsedean hartzeko asmoa neukan, baina kontrakoa izan da, egoerak behartu nau zintzotasunez kideekin lan egitera. Hasarreak bulztatu nau are lan gehiago egitera.

—Eta zenbat urtez izan zinen zinegotzi?

—Sei urtez.

—Oroitzapen ona daukazu, txarra...?

—Alde batetik ona, asko ikasi dudalako, baina horrek dituen mugak ere ikusi ahal izan ditut.

—Ezker Abertzalekoa izateagatik?

—Ez, sistemak berak dituen mugak. Zenbat gauza dagoen ezkutuan, baita han gaudenontzat ere. Ematen du zinegotziek herritar xeheek baino zerbait gehiagotara heltzeko aukera daukatela, eta bai, apurtxu bat bai, baina ez asko.

—Eta egoera politiko berriak zenbateraino eragingo du azken udal hauteskundeen ostean herrietan sortu den ordezkaritza arazoan? Eragingo badu behintzat...

—Halabeharrez eragin beharko du, ezta? Ezin dut pentsatu beste era batera izan daitekeenik, bestela *bluff* bat izango litzateke, argi eta garbi. Hala ere, hori ez da

"Egoera politiko berri honetan ezin gara begira egon"

inportanteena, ezinbestekoa izanda ere.

—Zuri zer begitantzen zaizu prozesua?

—Orain arte izan ez dugun aukera bat da, egon den marko itxia zabaltzeko.

—Funtsa igartzen diozu, orduan? Ze, beste batzuetan ere ilusiozko aroak hasi zaizkigu, eta azkenean dena pikutara...


—Uste dut ezin garela begira egon. Hala bagaude errazagoa da ezer ez gertatzea,

irteerarik gabeko kalean sartzea berriro. Baina uste dut jendearen kontzientzia eta lanaz orain arte egon diren muga horiek zabaltzeko eta politikarako aukerak egon daitezkeela. Azken urteotako egoeraren sorburua, hain zuzen, horixe da: politikak mugak izan dituela, eta ezin izan dela benetan, nahiz eta ordezkaritza bat egon, politikoki eragin. Eragiteko

mugak eta marko itxiak gaintitzen diren neurrian sortuko dira aukerak.

—Bitartean, beste marko batzuetan kontrakoa jazotzen dela emoten du. Hor dago oraindik 18/98 ospetsua, epaile batzuen erabakiak...

—Estatuan badaude, argi eta garbi, erresistentziak, gauzak ez aldatzeko nahia, eta esan dituzun horiek sintoma bat dira.



Horrek adierazten digu aldaketak ez direla errazak izango. Eta inoiz baino gehiago, orain, denok egin beharko dugula zerbait, benetan gauzak aurrera joan daitezen.

—**Ekologista petoa...**

—Petoa ez dakit, baina nire pentsakeraren oinarri sendoenetako bat da.

—**“Berdetasuna” modan dago ba, enpresena esan gura dut: dela energia garbia, dela ez dakit zer barritzagarria... Denetik iragartzen digute orain.**

—Ez diot horri begiratzeko dagoeneko. Hasieran hipokrita iruditzen zitzaidan, orain marketing hutsa besterik gabe.

—Eta zu txirrindulaz ibili ohi zara biztanleko hainbeste auto daukan Getxo honetan...

—Bai, hara, ez beti, oinez ere ibiltzen naiz, eta autoz ere bai. Gida-baimena atera nuen duela urte bi, eta adibidez aurrekoan autoz joan nintzen sanferminetara.

—Tira, ez gara orain autoaren onurak eta abantailak ukatzen hasiko, badauzka eta. Kontua da behin baino gehiagotan esan diguzula porlan gehiegi daukagula, auto gehiegi. Orain ere amaitzeaz dugu, itxura denez, Korredorearen azken fasea...

—Ez dakit amaitzen ari den, ematen baitu hori ez dela inoiz amaitzen. Ikusi genuen mendi bat guztiz desegiten, eta gero beste bat lehenengoaren aurrean. Lan ikaragarria izan da...

—...eta emoten du horren kontrako mugimendu gitxi egon dela eskualdean; gehiago espero zitekeen, beharbada...

—Orain dela urte asko egon zen zeozer, proiektua aurkeztu zenean. Baina nire ustez, gauzak beste era batera egin daitezkeela pentsatzen dugunok huts egin dugu, ez dugu gai hau behar bezala jorratu, eta makinak gainetik pasatu dira. Eta orain ematen du lan horiek ia amaituta daudela, baina horrek ez dauka amaierarik. Gero hurrengo fasea etorriko da, edo beste izen batekin, autobide horren jarraipena egingo da Urdulizerantz, Mungiarantz... Kostaldetik ere errepide berriak egin nahi dituzte, Galeatik Azkorri eta Ba-

rinatxerantz... Dagoeneko Sopelan bada-go, errotonda berri batean, Azkorri dioen errotonda bat. Oraindik ez dago errepiderik, baina errotonduak Azkorri dio. Norbaitek ezabatu egin du sprayz, zentzu onez. Beraz, badago jarraitzeko asmoa. Bizkaiko errepide planean dago, baita LPP (Lurralde Plan Partzial) horretan ere... Nik uste dut horiek ez direla beharrezkoak. Badago autobide handi bat, eta garrantzitsua litzateke kostaldeko beste bide horiek ez egitea.

“Kultura gehiago eta porlan gutxiago behar dugu”

—Batuetan -eta ahalik eta lekuri- neutralenean jartzen ahaleginduko naiz orain- emoten du batzuen eta besteen jarrerak behin eta barriro errepikatzen direla, azpiegituren inguruko gatazketan. Alegia, erakundeek, aldiro-aldiro, azpiegitura barriren bati ekin behar diotela derrigorrez, beharrezkoak diren oso seguru jakin barik ere; eta talde batzuek ere, beti-beti, azpiegitura horien guztien kontra agertu behar direla...

—Hara, ni Udaletxean egon nintzenean, gure taldeko hiru zinegotziok Punta Galearainoko oinezkoentzako bidea egitearen alde egon ginen. Beraz, ezin esan beti kontra gaudela.

“Ekologismoak eraman ninduen abertzalea izatera”

—Salbuespena izan daiteke hori, baina...

—Eta Metroa lurperatzearen alde ere egon ginen. Ni orduan ez nintzen zinegotzia, baina HBk zioen Metroak lurpetik zeharkatu behar zuela Getxo osoa. Eta hori ere azpiegitura handia bada.

—Zelangura, ez diguzu ukatuko Euskal Herrian “azpiegituren gerra” antzeko bat igartzen dela. Han-hemen dagoz gatazkak, eta emoten du gainera azpiegiturek

irabazten dutela beti...

—Bueno, ez beti.

—**Leitzarango autobidea ipiniko diguzu adibidetzat?**

—Ez, hori hain justu ez. Bere garaian irabazitako borrokatzat aurkeztu zen, baina gehienez berdinketa izan zen. Azkenean autobidea egin baitzen, beste era batera egin bazen ere.

—Eta zeintzuk dira irabazitakoak orduan? Ez dago, jendearengan, porlana beti gailentzen den sentipena?

—Plentzian, eskualde honetatik irten gabe, bazegoen asmoa Txipion kirol-portu bat egiteko, eta ez da egin. Badaude hola-ko adibideak. Arrazoi duzu, gehienetan egin egiten direla azpiegiturak, baina edo-zelan ere uste dut beste eredu bat aldarrikatu behar dela. Beste era bateko garapena, esango nuke. Garai batean garapen eramangarria izendatu zena, nahiz eta orain hitz hori beste era askotara erabiltzen den. Hazkundera baino, garapena. Kultura gehiago, eta porlan gutxiago. Gizarte legeaz garatzea gehiago, eta gutxiago begiratzea bat-bateko aberastasunari.

—Hain zuzen, eta errepideez dihardugunez, mugikortasunari buruzko eztabaida

sakona dago honen baitan, hori ere kultur arlokoa zelanbait... Zelan ulertu behar dugu mugikortasuna? Erakundeetatik datorren mezua argia da: mugitzea ona da.

—Nik uste dut inportantea dela, ondo bizitzeko, hainbeste mugitu behar ez izatea. Uribe Kostan bizi bagara, eta egunero Bilbora edo Txorierrira joan behar badugu lanera.. uste dut hori ez dela ona. Bilboko

metropoli mailan orain dagoen afera bat da hori: azken hamarkadetako garapenak eramane gaitu Uribe Kosta egoitza-gunea izatera. Hori *desarrollismo*aren garaietatik datorkigu, hala pentsatu baitzen orduan: industria guztia Ezkerraldean, finantzak Bilbon eta egoitzak Uribe Kostan. Orain Aldundiak, bere LPPan, aitortu egiten du gauzak beste era batera egin behar direla. Gaur egun, garapen eramangarriaren inguruko teoriak direla-eta, txosten horietan guztietan beste helburu batzuk aipatzen dira, baina gero praktikan bultzatzen dena aurkakoa izaten da. Esaten da: eskualdean oreka lortu behar da, dena egon dadila hurbilago, etxea, lana... Eta ez sortzea espezializatutako eskualdeak, nolabait esateko. Teoria horixe da, baina gero ikusten dugu Bilboko itsasadarrean desindustrializazioa dagoela, eta horren

ondorioz irabazten diren lur eremuetan, espekulazioaren bitartez, tertziarizazioa bultzatzen dela. Beraz, espekulazio-mugimendu handia aurreikusten da. Eta bestetik, Txorierrin industria garatu eta Uribe Kosta bizitegi gune bilakatu. Bestela, ezin izango genuke ulertu nola egin nahi dituzten, Getxon, 8.000 eta 11.000ren arteko etxebizitza kopurua.

—Jo dezagun bestelako gaietara. Euskaldun berria zara, eta ez oso giro euskaltzean hazitakoa, ezta?

—Gutxi gorabehera hogeit urterekin hasi nintzen euskaraz ikasten. Giro erdaldunean bizi izan nintzen, giro ez abertzalean. Baina Algortan, egia esan, gutxi entzun nuen, txikitari eta gaztetan, euskara.

—Eta orain?

—Orain gehiago entzuten dut, erantzuten didatenek, gehienetan, euskaraz eran-

tzuten didatelako. Baina gaztetan ez nuen asko entzuten. Ni txirrindularia izan nintzen Punta Galean, taldea sortu zenean hor ibili nintzen, eta txirrindulari munduan euskara nahikotxo entzuten zen; Bizkaiko herri askotan izaten ziren lasterketak, eta herri euskaldunetan entzun egiten zen. Bestetik, familiarekin kostako herrietatik ibiltzen ginen sarri, eta hor ere asko entzuten zen euskara. Horrek denak jakingura sortu, eta jakingurari esker hasi nintzen euskaltegian.

—Horrek eroan zintuen abertzalea izatera?

—Ekologismoak. Naturan biodibertsitatea garrantzitsua den bezala, eta arriskuan dauden elementuak zaindu behar diren bezala, arriskuan dagoen hizkuntza ere zaindu behar da. Eta abertzaletasuna horretarako tresna da, azken batean. ○

aldizkaria **etxean** jaso nahi baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....
Kalea & zenb.....Herria.....
e-mail.....Telefona.....

Urtero ☐ 20 euro ☐ 30 euro ☐ 50 euro ☐ beste kopuru bat euro

Kontu zenbakia (20 digito).

UK Uribe Kostako Aldizkaria

171 posta kutxa / 48991 Getxo / uk@aldizkaria.biz
tel.: 94 491 13 37






Ole! Portu Zaharrean

Ohi bezala, Getxoko Udal Liburutegiko behargin eskuzabalei *txapa* ematen ibili gara, argazki eske, jakina. Hango irudi artxibo oparoa arakatu eta hara non irudi bitxi hauekin topo egin dugun: Algortako Portu Zaharra toreroz eta bandera espainolez josia. Francoren diktadura ezagutu ez dugunontzat argazki erabat harrigarriak dira (bestelako adjektiborik ere gehi diezaiekezue), pentsa eta imajina ezinak, gaur egun inola ere ezin eman daitezkeenak. 1953 eta 1964 urteetan Portu Zaharrean egin ziren zekorketak eta nobilladak dituzue argazkiotan, gustatu ala ez herri honen memoriaren zati direnak.


Argazkiak: **Getxoko Udal Liburutegia**









[fotografia]





[fotografia]





zine**eskola**

Oskar Fernandez

Uda eta zinemaldiak

Uda eta zinemaren artean, betidanik, lotura estuak eta handiak garatu egin dira. Adibide bat baino ez dut jarriko, baina oso esanguratsua nire uste apalean. Duela mende erdi baino gehiago, 1953 urtean hain zuzen ere, Jacques Tatik (frantziar zinemagile komikorik hoberena eta pertsonen sortzen zituzten egoerak arakatzeko ahalmen berezia zuen zuzendariak) film bikaina, adierazgarria, interesgarria, ederra eta atsegina zuzendu zuen: *Hulot Jaunaren oporrak*. Film hau ikusita ez baldin baduzu, murgildurik gauden udako sasoi hau baino egokiagorik ez duzu topatuko istoriotxo honekin gozatzeko eta berau sentitzeko. Jakingo duzunez A kategoriako zinemaldiak planeta osoan zehar lau baino gehiago ez dira. Lehen bost ziren, baina Sobietar Errepublika Sozialisten Batasunaren desagertzearekin batera Moskuko zinemaldia ere gure begietatik desagertu zen. Aipatu zinemaldietatik, lauetatik, bi udako sasoi xarmangarrian kokatzen dira: Veneziakoa eta Donostiakoa. Hauek Berlin eta Canneseko zinemaldiak baino munduko zinemaldirik garrantzitsuenak dira. "La Mostra" xarmangarri betetako pareko hiri batean kokatzen da. Harriek, kanalek, enparantza txikiak, kale estuek, jauregiek, zubiek eta eremu monumentalek edertasunez betetzen dute hiria. Veneziako Zinemaldia abuztuaren 9tik irailaren 9arte zabaltzen da. Bestalde, gugandik hain hurbil dugu Donostiak hondartzaz inguratutik eta edertasunaz jantzita bere ate urdinak zinemaldiari irailaren 21tik -30arte zabaltzen dizkio. Informazio gehiago helbide honetan topatuko duzu: www.sansebastianfestival.com Azkenik, irakurle maitea, ondo baino hobeto pasa ezazu uda hau.

Zinema euskalduna**Eutsi!** euskarazko pelikula errodatzen dabil **Alberto Gorritiberea** Oarsoaldean

Azken bi urteotan zinema euskaldunak (eta ez euskal zinemak) izugarriko gorakada izan duela esan dezakegu: Telmo Esnalen eta Asier Altunaren *Aupa Etxebeste!*, Mireia Gabilondoren eta Fernando Bemusen *Kutsidazu bidea*, *Isabel*, Aizpea Goenagaren *Zeru horiek...* Mugimendu hori jarraiki jarri du martxan Alberto Gorritiberea bere lehenbiziko film luzea izango den *Eutsi!*


Deslokalizazioak bultzatuta, greban dauden lagun biren istorioa kontatzen du zintak. Gaur egungo kezken isla da umorez kontatuta. Protagonistei bizikletan ibiltzea gustatzen zaie eta euren protesta Tourtera eramaten saiatuko dira. Garaikidea den drama sozialaren gainean eraikitako komedia dela dio Gorritiberea.

Joan den ekainaren 19an hasi zuen zuzendariak pelikularen erroda Oarsoaldeko parajeetan: Pasai Antxo, Lezo, Jaizkibel... Hala ere,

«Unai Iturriagaren laguntzak freskotasuna eman dio istorioari»

ez dira horiek filma lekutzeko erabiliko dituen leku bakarrak, road-movie bat izanik, Euskal Herriko hainbat txokotik igaroko da-eta: Lizarraga, Esa, Donostia...

Gorritiberea ez da bakarrik egon proiektua aurrera ateratzeko orduan. Alde batetik, Unai



Argazkian, Unai Iturriaga

Iturriaga bertsolariaren laguntza izan du gidoia idazteko eta horrek istorioari freskotasuna eman diola nabarmen du zuzendariak. Bestalde, Bingen Mendizabal musikari trebatuak jarriko dio doinua filmari. Aktoreei dagokienez, gure artean nahiko ezagunak diren profesionalek hartuko dute parte grabazioan: Anjel Alkain, Asier Hormaza, Oihana Maritorea, Kandido Uranga...

Sei asteko filmaketa egingo dute eta 2007rako zinema aretoetan egotea espero dute *Eutsi!*-ko lan taldekoek. ○

Filmak > Autoak

Umeentzat ez dira, zoritzarrez, film interesgarri askorik egiten. Baina noizean behin salbuespenak heltzen zaizkigu eta istoriotxo hauek askotan edo beti kutsu didaktikoa dute. Ezagunak hori, izeko-osabek, gurasoek, aitite-amamek,... aprobeixatu behar dute eta umeak zine aretoetara eraman beharko lituzkete. *Autoak* filmaren atzean animazioaren jenio bat dago: John Lasseter. Bera "Pixar Animation Studios" zinema korporazio ospetsuaren fundatzaile partaidea izan zen eta berak zuzendutako filmek ospe eta arrakasta handia lortu zuten: *Toy story*, *Zorroak...*, *Toy story 2*. *Autoak* filmak oso istoriotxo interesgarria eta erakargarria garatzen du. Protagonistak, jakina, autoak dira, baina bakoitzaren barruan, inolako ahalegin berezirik egin gabe, gure gizartearen pertsonaia mota bat islatutik topatuko dugu. Pelikula honek begirada baikorra eta funtsezko baloreak lau haizetara zabaltzen ditu. Uda honetan disfruta ezazu!

Nun taldearen Collage

Uribekostarren **lehenengo lan** luzean
"intentsitatea eta emozioak" dira mugari



Hurrengo kontzertuak: Mendaro (hilak 22) eta Algorta (hilak 28). Harremanetarako: 659 53 72 35

Gaur egun Nun osatzen duen boskotea 2002ko amaieran sortu zen Eneko eta Xabi taldearen bareratu zirenean. Hurrengo urtean, taldearen izen bereko maketa kaleratu zuten eta *Collage* lehenengo lan luzea iragan maiatzaren edo eman zuten argitara Eremulauak edizio gune berriaren bidez. Uribe Kostako taldearen estiloa hardcorearen eta poparen arteko eremu mugagaitz horretan definitu dute, hardcore berria delakotik hurbil, eta melodiaren sakontasuna goraituz. 7 kantuz osatutako lana erditu dute Aitziber Omagegeaskoak (ahotsa), Eneko Burzakok (gitarra), Xabier Doncelek (baxua), Claudio Pavanek (bateria) eta Alvaro Barriusok

(gitarra). Esan daiteke, diskoaren izenak berak (*Collage*) borobiltzen duela Nunen lan berria; hala, taldeko baxu jotzaileak azaldu legez, *"abesti intentsitoak dira, lehenengo entzunaldian, nik uste, gogorak egiten dira kantuak; popzalea denarentzat agian gogorregiak dira doinuak, eta doinu gogorak gustatzen zaizkien jendearentzat agian lasaiegia; orduan, muga horretan gaude, eta pozik. Nik uste intentsitatea eta emozioak dira hitz gakoak"*. Diskoa 7-8 eurotan dago salgai webgunean, UK tabernan (Algorta) eta Zehatz elkartearen (Gorliz); hala ere, esfortzu txiki hori ere egin gura ez duenak saretik jaitz dezake, copyleft lizentzia dauka-eta. ○

Informazio gehiago: www.nunsarean.com

Erromo >

Ska-Reggae jaialdia



Erromo eta Pinuetako jaien egitarauan bada, beste hainbesteren artean, galdu ezinezko ekitaldi bat:

Nazioarteko Ska-Reggae jaialdia. Aurten

bederatzigarren urtea beteko du ekimenak eta Jai Batzordeak umoretsu aurreratu duen legez "Bob Marley ezin izango da etorri", baina gonbidatu benetan aipagarriak izango dira abuztuaren 5ean Erromon. Horra hor, kontzertua eskainiko duten taldeak: "Skama La Rede (Off Festival)" (Asturias), "Alpheus" (Jamaika), "Nano B, Queen Smiley, Supa Bassie" BACKED BY SOUL VENDORS (Valentzia), "Hertical Soundsystem" (Paris), "Begoña Bang Mato" (Euskal Herria eta Madril), eta "Sowetto" (Katalunia). Beraz, ska eta reggae musikagaz topa egin gura duenak txosnagunea izango du topaleku.

Zornotza >

Belarreggae jaialdia

Erromoko Nazioarteko Ska-Reggae jaialdia baino aste bat arinago, beste zita garrantzitsua ipin lezake reggaezaleak bere agendan. Oraingoan Uribe Kostako mugetatik kanpo, baina gure Bizkaia maite honetan, Zornotzan hain zuzen Belarreggae jaialdia antolatu dute aurten ere. Hilaren 24an, astelehena (20:00), jarri dute hitzordua Larrea futbol zelaian (10 euro). Hala, oholtza izar distiratsuek argituko dute: Luciano "The messenjah" (mezularia) jamaikarra, Cañaman, Hermano Ele eta Ben Jammin Raking Soldiers taldeagaz.

diskoak

Jauzia
Seiurte
Estoldetan



Lan berria Metak diskoetxeagaz ateratzekotan ziren, aurreko disko biakoz gertatu zen legez, baina Metak itxi egin zuten eta Estoldetan zigilua sortu behar izan zuten taldearen lana kaleratzeko. Aurreko lanetatik nahiko urrundu da Seiurte disko berria sortzerako orduan, hau da, pop-rock doinuetatik soinu dantzagarriago batera egin dute salto Berrizko lagunek.

Argamboys
Argamboys
Autoprodukzioa



70eko rock & rolla eta garage doinuak bildu ditu Durangoko talde honek bere lehenbiziko lanean. Gainera, taldeak bere kaxa ekoizitako diskoa da. Argamboys orain dela hiru urte sortu zuten sei lagunek, estilo musikal konkretu bat finkatu barik. Halere, lan honeguz euren estiloa aurkitu eta zortzi abestiz osatutako CDa eskaintzen digute.

Real Life
Joan As Police Woman
Reveal



Joan Wasser kantariak Nick Cave, Sheryl Crow, Anthony & The Johnsons eta Loud Reedekin lan egin du, baina oraingo honetan bakarlarri lanak egin ditu Raini Orteca baxu jotzailea eta Ben Perwosky bateria jotzailearekin batera. Hirurek Joan As Police Woman taldea osatzen dute. Uztailaren 25ean kantariak bere lana aurkeztuko du Donostiako Jazzaldian.

etorri
eta
ikusi!!

ORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Euzko Herria kalearekin bat)
Tfn: 94 491 23 79
Algorta

Bihotz Handi

Getxoko odol emaleak


Odola emateko egunak
ordutegia: 16:30 / 21:00

Algortako San Nikolas plaza
abuztuak 21

Areetako anbulatorioa
abuztuak 22

**Zatoz odola ematera,
ez itxaron!**

Informazioa: 900 720 389



BASALBO BASERRIA

JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbobaserria@yahoo.com

[liburuak]

Gerezi gorrien garaia


Jarrai-Haika-Segi auziaren berri ematen dute **Paul Asensiok** eta **Mikel Ayllonek**

2001. urtean Haika, Segi eta Jarrairen kontra egindako polizia operazioak Euskal Herriko hainbat gazte kartzelaratu zituen eta ostean luze iraungo zuen epaiketa bati hasiera eman zion. Prozesu horren berri ematen digute Txalapartak argitaratu duen *Gerezi gorrien garaia* liburuan Mikel Ayllonek eta Paul Asensio getxoxtarrak. Epaiaketaren materialagaz, egunkari txatalakaz eta auzipetutakoen testigantzakaz osatu dute egileek liburua.

Sugekume operazioan eta hain entzutsua izan zen ondorengo prozesu judizialean gertatutakoa kontatu gura du liburua, hala nola hura amaitu zenean gazte erakundeek izandako jarrera eta pairatutako ondorioak. Horrez gain, euren mezua zabaltzeko makina bat hitzaldi antolatu

«Gazteriak agertutako jarrera ausarta erakutsi gura dute idazleek»

dituzte Ayllonek eta Asensiok Euskal Herriko hainbat txokotan. Epaiketa zergatik egin zen eta zer suposatu zuen zabaltu gura dute eta «*gazte mugimenduen kontrako eraso*» izan zela eta «*gazteriak horren aurrean agertutako jarrera ausarta*» erakutsi. Auzia gazteen mugimendua suntsitzeko



Gazteriak jasandakoa salatu gura du liburua

modu bat izan zela diote idazleek, baina guztiz kontrako gertatu zela nabarmen-tzen dute eta gazteriak aurrera jarraitu zuela azpimarratu.

Hedabideek jarraipena egin zioten Jarrai-Haika-Segi auziari, baina liburua bestelako ikuspegia eskaintzen dio irakurleari, epaiketa gertutik bizi zuen jendearen iritzia eta bizi-penak kontatuz. Halaber, Audientzia Nazionalan ez dagoela justizia posiblerik salatu eta behin betiko ixteko eskatzen dute. Beraz, erakunde ugari astindu zuen prozesuari buruz gehiago jakin gura duenak badauka aukera *Gerezi gorrien garaia* lanean. O.

liburuak



Hitza azti

Iñaki Arranz
Alberdania

Hizkuntzaren gaineko gogoeta egiten du idazleak honako saiakera honetan. Halaber, horren nondik norakoak zalantzan jartzera bultzatzen gaituzte egileak proposaturiko ariketek. Horretarako, irakurleak ere parte hartzea gura du Arranzek, hizkuntza jolasgai bihurtzeko.



Unamuno

Mikel Soto / Iñaki Soto
Elkar

Miguel Unamunokoak izugarritzko eragina izan zuen bai Euskal Herrian zein Espainian. Nobelagile ospetsua, filosofoa eta politikaria izan zen aldi berean. Bere bizitzako hainbat pasarte ekarri dituzte gogora idazleek biografia honetan.

Oskar Martinez > kayak surf kirolaria

"Mundakan lortutako puntuakaz ziurtatuta daukat munduko txapelketako finalean egotea"



Hilak 23-30 bitartean "Zeltiarren arteko Jokuetan" lehiatzen ibiliko da algortarra Ingalaterran

Agian batzuei bere aurpegia ez zaizue ezaguna egingo, baina bere begiek ateratako zenbat argazki ez ete dituzue ikusi prentsari! Argazkigintza dauka ogibide, baina aspaldiitik daroa arrauna eskutik eskegita. Algorta, Raspas eta Kaikuko arraunlari izan zen, baina bizkarreko lesio batek arraunari agur esanarazi zion. Ostera, orain 8-10 urte berriro hartu zuen arrauna esku artean Oskar Martinez algortarrak, kayakean edo piraguan jarduteko. "Kayak era desberdinetan egin daiteke: erreka edo ibaian, pistan, zeharkaldiak eginez edo kayak surfa; azken horretan dihardugu, olatuak kayakaz hartzen ditugu, badaude surfeko antzeko maniobrak eta desberdinak ere bai", azaldu du 35 urteko piraguistak.

Erabiltzen dituzten piraguak beren beregi kayak surferakoak dira, "material oso arinez eginak daude eta gila batzuk dauzkate, olatuak eta maniobrak azkarrago egin ahal izateko". Uribe Kostan kayak klubik ez dagoenez Muskizgo Itsas Lur eta Mundakako Kayak Surf elkarteak dabil Martinez, baina gehienetan Sopelako hondartzetan egiten du entrenamendua, edota Mundakan ere bai. Izan ere, Mundakan antolatzen dute kayak surfeko mundu mailako proba

garrantzitsu bat. Aurton maiatzean egin zen, baina Mundakako olatuek kale egin eta Bakion egin zuten. Martinezentzat gaitz erdi, "International class" modalitatean txapeldunorde gelditu zen, eta "Open" motan laugarrena, gainera Munduko txapelketarako puntuagarria zen. "Munduko Kopak 5 proba dauzka: Brasil, AEB (2), Mundaka eta Irlanda; eta Portugalgo (urria) finalerako nakingaren arabera sailkatuko direnen artean, 4. postuan edo nago, lortutako puntuakaz

«Laguntza gehiago eman dezatela, diru-laguntza guztiak futbolak irensten ditu-eta»

parte hartzea ziurtatuta daukat", azaldu du. Baina ez da Munduko txapelketan jardun duen lehen aldia, Irlandakoan (2003) edo Costaricakoan iaz izan zen; datorren urtekoa Bakion egingo dute.

Amaitezko, askotan entzuten dugun aldarrikapena egin du kayakariak: "Gehiago lagun dezatela, diru-laguntza guztiak futbolak irensten ditu; laguntza eskean zoaz eta dirurik ez dagoela diote, eta jarraian Athletici mila milioi euro ematen dizkiote". ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa Kirol moda



350 m²

KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXeko ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.

SERVITEC



- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
- IRTEERA DOAN

☎ 94 430 52 00

Kasune, 18 • ALGORTA

BEROGAILU ETA ITURGINTZA INSTALAZIOAK



T: 430 53 46

HIRURAK

Sarrikobaso 15

48990 ALGORTA

Itxaso Larrea > Erandioko Mendibaiarte otxotearen zuzendaria

“Izugarri gogoko dut gizonezkoen abesbatzak zuzentzea”



Itxaso bere taldeko kideez inguratuta

Itxaso Larreak musikagintzari eskaini dio bere bizitza osoa. Piano, gitarra eta kantagintza ikasi zuen Bilboko Musika Eskolan. Ondoren, abesbatzetako zuzendari izateko prestatu zen eta makina bat taldetan jardun du harrezkero: Deustuko Unibertsitatean, Bizkaiko Abokatuen Kolegioan, Laredoko Saive abesbatzan, Txipli Txapla otxotean... Gaur egun, Erandioko Mendibaiarte otxotea zuzentzen du, eta pozik gainera.

—Zergatik otxote bateko zuzendari?

—40ko hamarkadan, Erandion bazegoen arrakastatsua zen otxoteen lehiaketa bat, baina denboragaz ohitura hura galdu egin zen. Orain dela sei urte, aldiz, erandioztar talde batek usadioa berreskuratzea erabaki zuen eta, garai hartan Txipli Txapla otxotea zuzentzen nuenetz, Mendibaiarte otxotea zuzentzea proposatu zidaten.

—Baina, zer da zehazki otxote bat?

—Ohitura Euskal Herrikoa da, batez ere Bizkaikoa. Abesten duten zortzi pertsonak

osatzen dute otxotea, baina musika klasikoa-ren ikuspegitik ez da okteto bat, tabernetan kantatzen zuten lagun taldea baizik. Ohituraren arabera, eurek abestu eta edaria doan ematen zien tabernariak.

—Ez al da gatxa gizonak zuzentzea?

—Izugarri gogoko dut gizonezkoen abesbatzak zuzentzea. Talde mistoak ere zuzendu ditut nozbait, baina gizonak andrakaz baino hobeto moldatzen naiz. Eurak ere pozik daude eta ez didate, andrazkoa izateagatik, inolako tratu berezirik egiten. Hala eta

guztiz ere, jarrera gogorra erakutsi behar duzu hasieratik, ez zaituzte emakume bat bezala ikusi behar, zuzendari bezala baizik eta hori irabazi beharra dago. Hasieran, atenez ematen du andrazko batek gizonezkoak gidatzea, nire amak ere esaten zidan: “Nora zoaz zu bakarrik gizonakaz?”. Baina ez dut inolako oztoporik izan, hori azpimarratu egin behar dut.

—Noizko andrazkoen otxote bat?

—Baten bat badagoela uste dut, baina Iparraldean. Hegoaldean, ordea, nik ez dut ezagutzen. Hala ere, badaude gizonezkoak zuzentzen dituzten andrazkoak; besteak beste, Txipli Txapla otxotean eta Laudioko abesbatzan.

«Gure otxotea lagun arteko joko bat bezala hartzten dugu»

—Mendibaiarte elkarte bat da, ezta?

—Bai, kultur elkarte mistoa. Orain dela 50 urte baino gehiago sortu zuten eta hainbat ekintza antolatzen dituzte: mendi irteerak, gastronomia... Elkarteak zein abesbatzak Erandioko Udalaren diru-laguntzak jasotzen dituzte. Astean birritan entseatzten dugu, ordu eta erdiz. Entseguaren erdian geratu eta presidenteak prestatutako pintxoak eta pote batzuk dastatzen ditugu; lagunaren arteko jokoa da gurea.

—Otxoteen etorkizuna iluna dela ematen du...

—Gazteek ez dute ohituragaz jarraitzen eta txikiteoan joateko usadioa ere galdu egin da. Gure abesbatzako adinaren batez bestekoa altua da: gazteenak 36 urte ditu eta zaharrena, berriz, 75. Jendeak hau egiten jarraitzea txalogarria iruditzen zait, ezberdin egiten gaituen zerbait delako. Baina, gazteek ez dute Bilboko abestiak kantatzeko gogorik. ○

Esakere > "Holan ezkaiz iñon pentzure"

Irudia: Gorka Vazquez



Ezta iñontzako erraz bizimodu atarate. Ondo nekatu behar direz hankak eta buru, tripe betetu eta teillatupen lo egiteko. Eta ona da behargiñe ixete eta ohiatik altxateko nagi gitxi aukite, baia batzuten hori bere ezta nahiko: behargiñentzako gauzarik txarrena da norberan beharra akabateko beste batzuk aurrea amaitu daien begire egote. Ezta iñori ondo etorten beste batzuk egiten daudenari adi egon behar ixete, beste batzun pentzure ibilte.

Esakera hau Iñaki Gamindek baturiko da, eta beran "Urdulezko berbak eta bizimodu" liburun topako dozue.

Gure **berbakere** 81

BERBA JATOR BATZUK (XX)

Berbakere 78n eta aurreko beste batzuten aspaldin erderatik harturiko berba batzuk, hau da, maillegu zahar batzuk, ikusi genduzen, gure euskeran aspalditik eta modu jatorrian erabiltzen direnak. Berbakere honetan aurrera egingo dogu horrek mailleguk ikusten.

Testua: **Xabi Bilbao**

• **leziño:** (iz.) gure aitite ta amamak 'leziño hartu' eta 'leziño emon' esaten auden, guk gaur egun 'eskolak hartu / eskolak emon' (edo sarri 'klase hartu / klase emon') esaten dogun lekun.

—Katillukade esne zópakaz edan ta leziño hártuten yóten gintzen arrabe ta biok eskólara.

• **májo:** (adlg.) sarri entzuten da hau berbe gure euskeren, eta 'ederto' esateko erabiltzen da.

—Májo égoten gara uden sillatxu bátzuk uretara arríma ta óñek errékan sartúte.

—Zarate ta hautse nahie altxa daudez baia akabun májo itxi daude kale guzti barritzúte.

• **mákiñe bat:** (adlg.) hau gure berbakeran bai eta beste askotan bere erabiltzen da. Danok dakigun lez, 'asko' esateko erabiltzen da.

—Mákiñe bat bider esan dotset botille tapáta górdeteko, baia eztau módurik.

• **mizkiñu/e:** (izlg.) yateko ordun 'kopla' asko dekon personan ganera esaten da mizkiñu edo mizkiñe dala.

—Lehen pozik yáten gendun ogi siku bere, baia oñ mizkinkeri báño eztau, úmek mizkiñu hústsek direz.

• **okasiño:** (iz.) Bátzuten berba hau erabiltzen da 'enterru' esateko.

—Belú gatoz ze okasiño batera yon gara, auzoko gizon bátena.

• **olga:** (ad.) bai gure berbakeran eta bai ingiruko beste batzuten 'yolastu' esateko erabiltzen da berba hau.

—Zénbet bider olga doten nik hemen léhengusukez!

—Periódiku darot úmek ólgetan dabilitzezen bitarten léduteko.

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 T: 430 23 45
Telletxe 1 T: 460 27 41

Algorta

Zure publizitatearen hemen
Zure publizitatearen hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Errotalde ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONAZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T: 4607084

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA



gaizka escudero / basalbokoa

Kabratxo

pudina

Ez zaitezte larritu, ez da hain gatxa plater goxo hau prestatzea! Lehenengo kabratxoa egosi behar da, ez asko. Ondoren arantzak eta azala baztertu eta arraina papurtu. Bestetik, barazkiak, hau da, tipula, porrua eta azenarioa su ahulean potxatu. Beste ontzi batean arrainaren mamia, esnegaina eta arrautzak irabiatu eta ondoren barazkiekin nahastu. Pipermina eta intxaur muskatua gustura bota. Hau guztia koipeztutako moldean sartu eta ordubetez 180 gradutan Maria bainuan egin. Kitto! Hotzean jaten badugu, platera mahonesa apur batekin lagun daiteke. On egin! ○

osagaiak (hiru lagunentzat)

• kabratxoa (kilo bat) • tipula bat • porru bi • azenario bi litro bat esnegain • dozena erdi arrautz • pipermina • intxaur muskatua




itsaso arana / jolastokikoa

Merlot

mahatsa

Jatorriz frantziarra da merlota eta Bordelen gehien lantzen den mahatsa. Zozoa (gaztelaraz, *mirlo*, bordeleraz *merlot*) txoriaren izen bera dauka, zozoaren lumen kolorea dauka-eta mahats honek: urdinera jotzen duen kolore iluna. Gainera biltzen den lehenengo mahatsa izaten da merlota eta zozoek mahats ale asko jaten dituzte garai horretan.

Cabernet Sauvignon arrakastuaren itzalean bizi izan da beti eta gehienetan honekin edo beste mahats mota nobleagoen osagarri bezala erabiltzen da; izan ere, ardaoak *biribiltzeko* eta euren kiantza azkartzeko ahalmen ikaragarria dauka merlotak. Azkenik esan ardao arinak eta ahoan oso atseginak ematen dituela. ○



TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?

*herriko pintxorik
onenak ditugu
etorri eta probatu!!*

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

Turikal dai

JOKIN GARATE BAYO
Neguriko Etorbidea 9
T: 491 14 87
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI
Aingeruaren etorb. 4B
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 GETXO



VIEJO CAFE

*kopak eta
giro jatorra*

Alangobarri, 4 Tel. 94 460 30 03
ALGORTA

[nora]joan

Sustrai taberna

Poteoan ibiltzeko leku aproposa



Agustin Susaeta eta Miren Bidaurrezaga jabeak

Miren Bidaurrezagak eta **Agustin** Susaetak denbora dexte daroe ostalaritzan beharrean, baina beste batzuen agindupean ibili dira beti. Iaz, ordea, euren negozioa aurrera erotea erabaki zuten eta Sustrai tabernako jabeak dira ordutik.

Ezaguna da Sustrai Algortan eta jendearen joan-etorria etengabekoa da egun guztian zehar. Asteburuetan koadrila asko biltzen da han poteoa egiteko, gehienbat familiak eta helduak. Aste barruan, aldiz, armozua hartze-
ra hurbiltzen dira bezeroak, tabernak eskaintzen dituen tostadak eta croissant erreak goxogoxoak dira-eta.

Sustrain dasta daitezkeen pintxoak ere ugariak dira: sandwich begetalak, pernila, patata-tortila... Miren Bidaurrezagaren esane-

tan, guztietatik arrakastatsuen hegaluzea da, maionesa eta antxoia daroana. *"Jendeak asko estimatzen du, bai astegunetan zein asteburuan"*. Horrez gain, nahiko bitxiak dira jabeek prestatzen dituzten gildak, ohiko osagaiez gain, gaztaia daroe-eta. *"Eta kontuz gero txikiteroei gildetako gaztaia kentzeagaz..."*, dio harro Mirenek; izan ere, osagai horrek bezeroek gogoko duten ikutu berezia ematen diola onartzen du.

Ordutegi nahiko zabala daukate, nahiz eta goizeko ordu txikietan beharrrik ez egin. Taberna egun guztietan egoten da irekita, 8:00etatik 15:00ak arte eta 18:00etatik gauean zarratu arte. ○

SUSTRAI Basagoiti, 71 - Algorta



KONTXI
ZUĀZUBISKAR

URDAITEGIXA

*Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztaietan!!*

Alangobarri, 10 ALGORTA
T.: 94 491 02 93



GOZOLATZEA
GALDARETXE

• Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
• Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
• Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
• Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
• Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25

AREETA



Asador Goieztia



- Zabalik egunero
- Eguneroko menuak
- Enpresa menuak
- Menuak norberaren gustura
 - Egunero karta berezia
 - Gazez dastatzeko menua
 - Jaun hartze bazkariak
- zure gustura prestatzen ditugu.

Aretxondo 14

Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93



prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoeirikin bat)
T: 94 430 69 42 /ALGORTA

GOIZEAN



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"

Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarriak

Orduña Mendatea 1
T: 430 22 13
GETXO

Telletexe 13
T: 460 02 88
ALGORTA

**aldizkaria
etxean jaso
nahi baduzu**



uk@aldizkaria.biz
94 491 13 37

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)

Erabaki garrantzitsua hartzeko ordua heldu zaizu, zure etorkizuneari eragina izango duena. Gaxa dela badakit, baina igaro beharreko zerbait da. Hori bai, hartzen duzun erabakia hartzen duzula ez damutu, onerako izango da-eta.

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)

Oste izuguriagaz itartzen zara domekatar, aurreko gauetan xurruetan ibili ondoren. Orduan izaten dira komeriak! Zenbat bider entzun dute zure ingurukoek irtengo zaren azkeneko aldia dela, zahartzen zabilazala...

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)

Onartu beharko duzu entzuten duzun musika ez dela zure gurasoen gustukoa. Bajatu bolumena behingoz eta ikasi zure afizio berberak ez dituzten pertsonak elkarbizitzen edo etxe bat alokaru. Zein nahiago?

META



(Irailak 17 urriak 16)

Bikoteagaz galdutako misterioa berreskuratu guran zabilazala? Ba, orduan, ez ahaztu loreak, izarrez betetako zerua, afari erromantikoa, hitz politikak... Hainbeste urteren buruan irudimena eta originaltasuna beharrezkoak dira.

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)

Eguzkiak ondo egiten dizu: umoretsu zaude, pozik, eta hamaika gauza aldi berean egiteko indarra eta gogoa daukazu. Etekin atera iezaiozu bertute horri, badakizu hemen euria eta lainoak laster dotozela!

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)

Zelako itxura txarra daukazu azkenaldian! Hostoa barik, udazkeneko orbelak dirudizu. Jagon zaitetz apurtu bat eta hobeto sentituko zara, askotan ez delako fisikoaren gauza izaten, hain garrantzitsua den osasun mentalarena baino.

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)

"Barkatu beti zure etsaia. Ez dago ezer hainbeste haserretuko duenik", esan zuen behin Oscar Wilde idazleak. Beraz, izorratu dizun horri ez erantzunik eman, hori da-eta bilatzen dabilena. Kasurik ez!

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)

Inoiz entzundako "Jaietan blai" leloa aplikatzeko prest? Zure herriko festak hasteko egunak zenbatzen zabilza, ezta? Gutxi falta da, "hamar, bederatzi, zortzi, zazpi, sei, bost, lau, hiru, bi, bat..."

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)

Galduta sentitzen zara eta ez dakizu ze bide hartu: lana utzi, lanean jarraitu eta ez arriskatu, atzerria joan eta esperientzia berriak bizi... Etorkizuneari ez pentsatu hainbeste eta zure ametsak bete.

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)

Zelako ahalmena daukazu jendea konbentitzeko, izugarria da! Basamortu batean "aquapark" bat jartzeko kapaza zara eta edozein tokitan erraztasunez mugitzeko gaitasuna daukazu. Inbidia ematen didazu, benetan...

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)

Maite duzun pertsona badoa eta beragaz joateko aukera eman dizu. Pentsatu behar duzula esan diozu? Zertan ari zara? Gauza horreek ez jokatu, ikusten duzun azkeneko aldia izan daiteke-eta. Abenturak bizi!

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)

Amamak asko daki, beraz, gauza askotan egiozu kasu. Gomendio bat ematen dizunean ez da zu izorratzeko, zu laguntzeko baizik. Bizitzak eskarmetua ematen dizu, jesarri eta entzun esan behar dizuna.




MUNGIA OKINDEGIA


Algortan badaukagu
artisaunen ogia
izen eta jatorriz
da "ogi mungia".

Goizero lortzen dogu
obispoen guleria
probatu bada edo ez
dan benetako ogia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA



HITZ GURUTZATUAK



Ezker eskuin

1. Baloiak jokatzen den kirola. 2. Goraipatu. Kontsonante bikoitza. 3. Titanoaren ikurra. Bizkaiko mendatea. 4. Oztopoa, eragozpena. 5. Bizileku. Potasioaren ikurra. Musika nota. 6. (Errep.) Txori mota. Har ezak. Erre. 7. Bokala. Oinaztura. 8. Jainko egitoarra. Bizk., ote. Epe. 9. Gune hezeetako landare. Zahagi txiki. 10. Guraso arra. Besteen habiak baliatzen duen txoria.

Goitik behera

1. Lapikokoa, eltzekia. 2. Aha-
legindu. Nahastura jangarri. 3.
Kukuaren hasiera. Bederatzi.
Kontsonantea. Idi, hitz elkarke-
tan. 4. Heriko etxe. Bokala. 5.
Atzo gauean. Nafarroako herria,
Malerrekan. 6. Erronkarian, men-
dien arteko igarobideak. Mine-
ralak. 7. Gizon izena. Pare bat.
Hungariaren laburdura. 8. Oxi-
genoaren ikurra. Bidaia-
irinez bete. 10. Garaia. Trebea.

Soluzioak

A	U	K	U	K		V	L	I	V
O	L	V	H	V	Z		I	H	I
I	V	L		E	T	E		V	R
V	L	S	I	M	I	X	T		V
I	Z	B		O	L			U	K
	E	R		K		E	X	T	E
V	N	U	S	V	L	I	V	Z	
O	I	O	T	I	A	R	E	I	T
R		R		U	A	T		V	L
O	I	A	L	O					

asmatu eta irabazi > bi lagunentzako bazkari bat



Nor da?

- Jose Ramon Soroizen emazte "telebisiboa".
- Antzerki asko egin du.
- Etxebestetarren euskarria.

> Aurrekoaren erantzuna: Uxue Barkos

> Irabazlea: **Joseba Zuazo* (Getxo)**

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37


Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean
bi lagunentzako degustazio berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz

Usategi kafetegia



Usategi parkea z/g, **Algorta**
Telf. erreserbak: 94 460 64 13



Basurto

Algorta S.L.
altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m²ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • **ALGORTA**



Bittor Egurrola

Itxas-Argia dantza taldea Portu Zaharrean, 1984

Itxas-Argia esateak Paella Eguna ekartzen digu gogora gehinoin, baina Itxas-Argia elkarteak urtero uztailearen 25ean Nazioarteko Txapelketa hori antolatzeaz gain, makina bat ekintza burutzen ditu urtean zehar, batez ere Mendi Taldea eta Dantza Taldearen bitartez.

Desagertutako igerilekuen aurrean ateratako goiko erretratuan, Algortako Portu Zaharreko 1984ko jaietan dantzatu zuten lagunak dituzue. Dantza taldearen sortzailea ere, Paulino Azkue, hortxe dago. 30 urte eman zituen Paulino Azkue taldeari lotuta, hasieran dantzari eta gero dantza irakasle. Gaur egun adin guztietako 100 dantzari inguruk osatzen dute 1964an sortutako Itxas Argia dantza taldea. Pozgarria benetan! ○

Zutunik, 1. lerroa: Amaia Santiago, Eusebio Gil Navarro (GB), Eusebio Diez, Ziortza Aspuru, Nagore Borda, Agustin Resines, Jose Antonio Rodriguez, Paulino Azkue, Jon Madariaga, Jon Ander Madariaga, Pedro La Cruz, Gotzon Fuertes.

Zutunik, 2. lerroa: Juanjo Basterretxea, Amaia Mendizabal, Idoia Egurrola, Miren Rodriguez, Mari Espe Fuertes, Julen Laradogoitia, Edorta Ribera.

Makurtuta: Mari Jose Mardaras, Perdeica Azkorra, Mari Carmen Mardaras, Luismi Garcia, M. Jesus Gil Susi, Juan Ramon del Olmo Karako, Eli Garcia, Jon Txaber Mendizabal, Nekane Sarria, Jose Antonio Rodriguez Barraka, Ana San Nikolas, Kontxi Etxebarria.

RAFA RUEDA > musikaria

"Etxeko andreak miresten ditut, euren lana baliogabeturik dago"

Testua: **Oiane Moran** / Argazkia: **Juan Gomez**



Defini ezazu zeure burua berba bitan.

Burugogorra eta kementsua.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Paris-Texas. Askotan ikusi dut pelikula hori.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?

Etxeko andreak, ez dituztelako aintzat hartzen. Euren lana baliogabeturik dago.

Ohitura txarren bat al daukazu?

Bat bakarrik ez, asko ditut!

Aitor dezakezun bizio bat.

Bizioak ezin dira aitortu.

Berriz egingo zenukeen bidaiarik ba al dago?

Saharako desertura eta New Yorkera. Leku kontrajarriak dira, baina oso interesagarriak biak.

Zer huts egite ez duzu sekula barkatzen?

Egia esan, dena barkatzen dut, edo saiatu egiten naiz behintzat.

Zein da zure ametsetako bat?

Egunerokotasunean pozik bizitzea.

Lo egiteko ezer janzten al duzu?

Hotz egiten badu, pijama eta beroagaz ezer ez.

Zer gabe ezin zaitezke bizi?

Musika barik, topikoa ematen badu ere.


Zein da ikusi duzun azken filma?

Rosario Tijeras. Goraipatzekoa da Unax Ugalde aktoreak egiten duen lana.

Eta irakurri duzun azken liburua ?

Joseba Zulaikaren *ETAren hautsa*. Idazleak egiten dituen hausnarketak nahiko interesgarriak dira, gauza batzukaz bat ez natorren arren. ○

LABURREAN—Rafa Rueda Mungiako PILT taldeko abeslaria bada ere, azkenaldian taldetik kanpo hainbat proiektutan ibili da buru belarri. 2001ean, adibidez, *Bar Puerto* grabatu zuen Mikel Urdangarin, Kirmen Uribe eta Bingen Mendizabalegaz. 2003an, berriz, *Zaharregia txikiegia* agian proiektua kaleratu zuen artista berberakaz eta kontzertuak eskaini zituzten Irlandan, Alemanian eta AEBetan. Aurtun, *Saredun eskua* bere bigarren bakarkako lana (lehenbizikoa, *Kea*, 2003an kaleratu zuen) argitaratu du. Hamar kantutatik bost osatu ditu abeslari bizkaitarrak eta gainerakoetan euskal idazleen poemak hartu ditu oinarri, besteak beste, Unai Iturriaga, Gotzon Barandiaran eta Jon Benito.



OSPATU ETA OROITU EUSKARAZ

Euskara Zerbitzuak zorion-txartel, gonbidapen edota oroigarri ereduak batzen dituen liburuxka argitaratu du. Liburuxka kontsultatu nahi izanez gero jo ezazu iragarki honetan agertzen diren inprentetara. Udalaren web gunean ere aurkituko duzu: www.getxo.net

ARGAZKI LUR (Euskal Color Amezti),
ARGAZKI LUR (Villamonte),
LIBRERÍA ZUGATZARTE,
EUSKAL COLOR,
ARNAGA,
BEHIN BATEAN,
FOTO Y PAPEL,
ITXASIKUS,
LIBRERÍA ERKUDEN,
LIBROS PAPELERIA ANA M^a BOLOIX,
COSAS,
HODOI,
LIBRERIA ITZIAR,
BOLIVAR ELORDUI LIBURUDENDA,
KOPRINTER,
FOTOCOPIAS KISER,
IMPRENTA ARENAS,
LIBRERÍA MAYOR 29,
LIBRERÍA NADAL,
LIBRERÍA PAPELERIA BLOCK,
BEREZI COLOR,
CIANOPLAN,
FOTO RICARDO,
FOTO IÑAKI,
LADREDO HERMANOS





Erreferentziako
txartela:
Finantza-txartelen
erraztasun
guztiekin eta
gainera...

**Bidaia-
asistentziako
doako aseguria**
abantailak era
guztietako 2.000
establezimendutan.

Deskontuak
mundu osoan
izateko giltza.

Kontsultatu
BBK26 gida,
www.bbk.es
orrian